

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko martxoaren 22a

III. urtea • 58. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Euskal erromeria prestatzen dabilta Bergaran



MIKEL GARAIZABAL

"Prestigioa ematen du ardoaren gainean berba egiteak; modan dago" /8-9

DEBAGOIENA

Urrezko Q saria eman dio lehendakariak Euskadiko Kutxari /4

AGUIFEX ELKARTEA DEBAGOIENEAN ERE LANEAN

Eri psikikoen familiendako elkarte

Gipuzkoako herri guztietan dago gaixo psikikoren bat, gutxienez. Baina arrazoi bat dela edo bestea dela, isilpean gordetzen jarraitzen ditugu gaixo horiek, gizartearen begiradarengandik aldentu gura bagenitu bezala. Joera hori bereziki nabarmena da gure ibarre-

an, Debagoiengan. Horrek hainbat desabantaila ditu, egoera berean dauden beste lagun batzuk ezagutu eta elkarrekin lan egiteko aukera galtzen da-eta. Hori da Agufex elkartearen xedea: gaixo psikikoen senitartekoei bat egitea, hain justu ere. /2-3

LAN-ISTRIPUA

Gazte bat hil da Bergaran, bariantean lanean ziharduela

Bergarako saihesbideko lanetan beste langile bat hil zen eguaztenean. 25 urteko gazte errenteriar bat autoa konpontzen ari zela izandako deskarga elektriko baten ondorioz hil zen.

ERASOA ELGETAN

Gudarien omenezko monolitoari eraso egin diote

Espainiako gerran Intxortako frontean borrokatu zuten gudarien omenez Asentzioko bidegurutzean dagoen granitozko monolitoa puskatu egin dute ezezagun batzuek. /5



ENEKO AZKARATE

Arantzazu berria aurkeztu dute

Arantzazu eraberritzeko proiektua aurkeztu zuten astelehenean Arantzazun. Han izan ziren Iñaki Beristain frantziskotarra eta proiektuaren egile Miguel Alonso arkitektoa. Arantzazuko lehenengo seminarioaren atal bat eta pilotalekuak bota egingo dituzte. Horien ordez, eraikin berria egingo dute, lehenagokoa baino txikiagoa; hain justu, haren bolumenaren herena hartuko du, eta kultura jarduera askotarako erabiliko dute. Horrez gain, hainbat urbanizazio-lan egingo dituzte aparkalekuaren inguruan. Lanak apiril amaieran hasi nahi dituzte eta datorren urte bukaerarako amaituta egotea aurrez ikusi dute. Egitasmo horren aurrekontua ia 5.500.000 eurokoa da. /4

Kalean dira kirol fitxa berriak

Eguaztenean aurkeztu zituzten Elgetan euskarazko kirol fitxa berriak, Aerobiceko eta Prestaketa Fisikoko fitxak, hain justu ere. Debagoieneko Kirol eta Euskara zerbitzuen Kirola Euskaraz programaren barruan aurkeztu dituzte fitxok. Danel Fernández de Jauregik eta Silvia Arribas, Leire Cano eta Onintza García hirukoteak egin dituzte fitxok.



Aerobiceko eta Prestaketa Fisikoko fitxen egileak eguaztenean Elgetan.

Erdiko kale 32
ARRASATE
943 79 16 12

GIZONAK EMAKUMEAK

LKO JANTZIAK

Ibai-arteren bazkide

Gaixoen senideak, elkartuta

Gipuzkoako Agufes elkarteak gaixo psikikoen senitartekoak biltzen ditu. Debagoiengan, ordea, Agufes-ek ez ditu behar bezainbat bazkide.



Hona hemen Agufes elkarteko hainbat langile eta bazkide. Bilerak, irteerak, solasaldiak... sarri

sustatu.com

<http://www.sustatu.com>

in t e r n e t e k o
p r o f e s i o n a l
e u s k a l d u n e n d a k o
a l b i s t e g i a

LEIRE KORTABARRIA

Baieztatuta dago: Gipuzkoako herri guztietan dago gaixo psikikoren bat, gutxienez. Baina, arrazoi bategatik edo bestearengatik, isilpean gordetzen jarraitzen ditugu gaixo horiek, gizartearen begiradarengandik aldentu gura bagenitu bezala. Joera hori bereziki nabarmena da gure ibarrean, Debagoiengan. Horrek hainbat desabantaila ditu, bai gaixoarendako berarendako, bai eta bere ingurukoendako: egoera berean dauden beste lagun batzuk ezagutu eta elkarrekin lan egiteko aukera galtzen da.

Hori da, hain zuzen ere, Agufes elkartearen xedea: gaixo psikikoen senitartekoek bat egitea. Kontua da, baina, Debagoiengan elkarte horrek ez duela behar bezainbesteko indarra.

KONTRAESANAK DEBAGOIENAN

“Kontraesan handiak gertatzen dira Debagoiengan. Alde batetik, Aita Menni egoitza edo buru osasunerako zentroa ditugu, baina, bestalde, errealitatean, ikusi dugu gaixo horien familiek ez dutela jakiten nora edo norengana jo”. Horra hor zer dioten Evak eta Lurdesek, Agufes-ko Berga-

Agufes elkarteak oso bazkide gutxi ditu ibarrean, nahiz eta hemen ere gaixo psikikoak egon

Debagoieneko gaixo psikikoen familiek ez dute jakiten nora edo norengana jo laguntza bila

rako bi kidek. Euren ustez, nahiz eta Debagoiengan hainbat buru osasun erakunde egon, ez dago gaitz horien edo familiek egin dezaketenen gaineko behar bezalako informaziorik.

Agufes elkarteak gaixo psikikoen senideak biltzen ditu, eta hutsune horiek estaltzearen alde lanean dihardu. Debagoiengan arazo hori isilpean gordeta bizi direnak hurbildu daitezzen, hori da orain euren nahia.



itan antolatzen dituzte.

AGUIFES

MAYTE ETULAIN / AGUIFES ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

“Kaltetuak mobilizatu egin behar dira, gauza asko lor ditzakete”

Aguifes-ek, Gipuzkoako senide eta eri psikikoen elkarteak, 17 urte daromatza honezkero lanean, eta 620 bazkide ditu gaur egun. Mayte Etulain da taldeko koordinatzailea.

Zein da Agufes-en helburua?

Gipuzkoako gizartearen buru osasuna ahalik eta hobeaz izaten laguntzea, gaixotasun psikikoa normalizatuz eta gizarteak onar dezan lagunduz. Gaixoen bizi baldintzak ahalik eta onenak izan daitezten gura dugu, hau da, ahalik eta burujabetasun eta garapen pertsonal maila altuenak ematea, besteak beste. Gainera, familiei ere laguntza ematen diegu.

Zein motatako zerbitzuak eskaintzen ditu Agufes-ek?

Zerbitzu orokor moduan, bakarkako orientazio eta laguntza eskaintzen dugu, Harrera eta Orientazio programaren bidez, Donostian, Eibarren eta Zumarragan. Bestalde, gaixo psikikoen gizarteratze gune bakarra familia denez, senide taldeak antolatzen ditugu, heziketa eta laguntza eskaintzeko. Talde horiek ere Donostian, Eibarren eta Zumarragan izaten dira.

Bestalde, gaixoei zuzendutako zerbitzu zehatzagoak ditugu: adibidez, pisutan taldeka bizitzeko aukera ematen diegu; eguneko zentroak kudeatzen ditugu; etxean bertan hainbat laguntza mota



eskaintzen dizkiegu; aisialdi programak ere antolatzen ditugu... Eskaintza horiek gehienak Donostian, Eibarren eta Zumarragan ditugu.

Debagoienean ez dago, hor-taz, horrelako zerbitzurik.

Datozen urteotarako, helburu garrantzitsu bat dugu: Gipuzkoan, buru gaixotasunaren arloan, erreferente bilakatu gura dugu. Horretarako, Gipuzkoako hainbat ibar eta eskualdetan presentzia handiagoa lortu gura dugu. Era berean, gaixoendako eta familiendako giza eta osasun zerbitzu gehiago eskainiko ditugu.

Zure ustez, zergatik du Agufes-ek hain implantazio txikia Debagoienean?

Urtetan zehar, Arrasateko Buru Osasun Zentroak Araban izan zuen erreferentea, eta bali-teke arrazoi horregatik Agufes-

ekiko harremana hain estua ez izana. Baina, orain dela pare bat urte, Arrasateko zentroak berri-ro Gipuzkoan izan zuen erreferentea eta zuzendaritza. Berehala jarri ziren gurekin harremanetan, eta gaur egun, oso harreman ona dugu.

Zergatik da garrantzitsua gaixo psikikoen senideendako elkarte batera jotzea?

Gaixo horien familiek talde baten beharra izaten dute, hau da, antzeko egoera baten daudenen laguntza behar dute. Talde horretan integratuta, ulertuta eta lagunduta sentitu beharra izaten dute.

Baduzue Debagoieneko gaixo psikiko kopuruaren gaineko daturik?

Osakidetzaren 2000. urteko memoriak dienez, Gipuzkoan 17.957 lagun atenditu zituzten, eta Arrasateko buru osasun zentroan, 8.255 kontsulta izan ziren.

Zer esango zenieke Debagoieneko kaltetuei?

Gurekin harremanetan jar daitezela. Euren galderak eta kezak entzuteko eta laguntza programak martxan jartzeko gaude. Kaltetuak mobilizatu egin behar dira eta jakin beharra dute elkarre baten bidez gaitzak ezagutzea, gaixoen integrazioa, dauden zerbitzuen hobekuntza... lortzen dela. Bestalde, osasun eta udal erakundeei eskerrak eman gura dizkiet, euren laguntzarengatik.

GAITZIK LARRIENA Eskizofrenia da gaixotasun larriena

Gaixotasun psikiko larriena eskizofrenia da. Errealitatearekiko lotura apurtu egiten da, adimenean, pentsamenduan, sentimenduetan, eta errealitatea ulertzeko eran. Munduan, mila biztanleko batetik zazpira eskizofrenia gaixo daude. Normalean, 20-35 urte bitartean antzematen da, baina lehenago ere sintomak izaten dira. Ideia deliranteak dira sintomarik begi-bistakoena.

‘TRISTE NAGO’ Depresioa, buruko gaitz oso hedatua

Aguifes-en datuen arabera, populazioaren %3-4k du depresioa. Mediku orokorren gana doazen gaixoen %10-20k depresioa du, eta psikiatrarengana jotzen duten gaixoen erdia depresioa da. Hala ere, depresioak, gehienetan, ez du tratamendurik jasotzen: hori kasuen %89an gertatzen da. Sintomak hauek dira: tristura orokorra, bizitzeko eta gozatzeko interes eza, nekea, apatia...

ARGALDU NAHIAN Anorexia nerbiosoa edo gorputza, obsesio

Anorexia eta bulimia ere buruko gaixotasunak dira, eta berez heriotza ekar dezaketen buruko gaitz bakarrak, gainera. Anorexiak honako sintomak izaten ditu: adinari eta altuerari dagokion pisuari eusteko nahi eza, gizentzeko beldur handia, norbere pisua modu desegokian antzematea, eta hilekoa hiru aldiz jarraian ez izatea. Botikak eta psikoterapia ezinbestekoak dira.

DROGA GOGORRA... Alkoholak ere buruko gaitzak eragiten ditu

Alkoholak hainbat arazo dakartza, eta horietatik txikiena ez da buruko gaitzarena. Arazo fisikoez gain, arazo sozialak ere sortzen ditu, eta dementsia edo eromena ere sor dezake. Psikiatrari egindako kontsulten %20 alkoholarekin zerikusia duen zerbaitegatik dira. Alkoholikoen %80k familia arazoak dituzte. Medikularrialdien %15 eragiten ditu alkoholak.

BIZITZEA, ZEIN ZAILA! Neurosiak, edo bizitza zailtzearen ‘arteak’

Egonezina edo angustia sentitzen dugunean, gure burua defenditzen saiatzen gara, eta hori nahikoa ez denean, neurosia agertzen da. Antsietatea, agorafobia, fobia soziala eta, oro har, mota guztietako fobiak; hipokondria edo osasunarekiko gehiegiko kezka... horra hor neurosi mota batzuk. Tratamendurako, lasaigarriak hartu beharra dago, eta psikoterapia egin.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

ZURE AMETSETAKO ETXEA!

- Besaulki eta sofa etzangarriak
- Besaulki altxagarriak
- Latexeko edo tempurrezko koltxoi anatomikoak
- Doitasunezko somierrak, elektrikoak eta eskuzkoak.



ENEKO AZKARATE

Arantzazuko frantziskotarrak oso gustura daude Miguel Alonso arkitekto iruindarraren proiektuekin.

Apirilean hasiko dituzte Arantzazuko Santutegia eraberritzeko lanak

Urte eta erdian, eraikin berria egin eta ingurua eraberrituko dute

ENEKO AZKARATE

Arantzazu eraberritzeko proiektua aurkeztu zuten astelehenean Arantzazun. Han izan ziren Iñaki Beristain frantziskotarra eta proiektuaren egile Miguel Alonso arkitektoa. Arantzazuko lehengo seminarioaren atal bat eta pilotalekuak bota egingo dituzte. Horien ordez, eraikin berria egingo dute, lehenagokoa baino txikiagoa; hain justu, haren bolu-

menaren herena hartuko du, eta kultura jarduera askotarako erabiliko dute: erakusketak edo hitzaldiak antolatzeke, batzarrak egiteko... Horrez gain, hainbat urbanizazio lan egingo dituzte aparkalekuaren inguruan. Lanak apiril amaieran hasi nahi dituzte eta datorren urte bukaerarako amaituta egotea aurrez ikusi dute. Egitasmo honen aurrekontua ia 5.500.000 eurokoa da (900 milioi pezeta).

Azpian dagoen harkaitzari eutsiz botako dituzte pilotalekuak. Horrela, harkaitz hori nabarmendu egingo da, kulturunerako joateko egingo den bide eta begiratoki berriaren bidez. Begiratoki hori arkupe baten gainean eraikiko dute eta basilikara begiratzeko harmailak izango ditu. Eraikuntza berri horrek Arantzazuko berezko duen sorpresa-sena indartu egingo du eta Oteizaren apostoluzua hobeto ikustea ahalbideratuko du.

Molde biribileko arkupea autobusendako aparkaleku bezala erabiliko da. Aparkaleku hori leizearen sakonean sartuta geldituko da. Bestalde, arkupe horretan bisitariendako informazio-gunea, garbilerakua eta komunak ipiniko dituzte. Horrez gain, Oteizak "Arantzazuko katedralak" deitu zion zubiperako sarrera ere hantxe egingo da.

Oinezkoendako dauden bideak aprobeztatu eta bost metro zabalera pasealekua egingo dute. Pasealeku zabal horrek kenduko dituen aparkalekuaren ordez, Koroazioko Kaperaren behealdean egingo den aparkaleku berria egingo dute.

Naturak eta arkitekturak, bat

Arantzazu eraberritu eta kultura topagune bihurtzeko lanak frantziskotarrak han daudela 500 urte bete direnean egingo dituzte. Proiektu berriarekin, Santutegiaren ingurunea indartu eta beronen jatorrizko izaerak eta historiak gordetzen duten naturaren eta arkitekturaren arteko harreman berezia sustatu nahi dituzte. Hori posible izateko, hirurogeiko hamarkadako eraikin handiek estali zuten natura ingurunean egoki kokatuak dauden lan arkitektonikoak egingo dira. Proiektuaren aurrekontua 5.409.108 eurokoa da. Horietatik, 2.307.000 euro Eusko Jaurlaritzak ipiniko ditu; Gipuzkoako Diputazioak beste 1.202.000; Oñatiko Udalak, berriz, 270.000 euro. Bestea? Kutzak, Arantzazuko Lagunak elkarteak...

BAILARAN LABUR

'Fedearen testigu' lelopean, Arantzazura ibilaldia egingo dute bihar, zapatua

Donostiako elizbarrutiak antolatutako Arantzazuko ibilaldia izango da bihar, zapatua. Zortzi kilometroko ibilbidea izango da, Oñatin 09:30ean abiatu eta Arantzazuko Santutegiraino. Aurten ere, milaka lagunek hartuko dute parte ibilaldian, baita Debagoieneko askok ere. Horretarako, autobusak antolatu dituzte Gipuzkoako bazter guztietatik. Iazko Garizuman euskal gotzainek kaleratutako *Fedea gaur transmititzea* pastoralean dago oinarrituta aurtengo igoerarako aukeratu duten leloa: *Fedearen testigu*. /E.A.

Euskadiko Kutzari Urrezko Q saria ematera etorri da lehendakaria ibarrera

Aste honetan, beste behin etorri da Debagoienara lehendakaria. Oraingoan, Euskadiko Kutzari Urrezko Q saria ematera. Eguaztenean izan zen Arrasaten, Euskadiko Kutzaren egoitzan. Debagoieneko beste bi enpresak ere jaso dute sari hori: Coprecik eta Fagorrek. /E.A.

Aurten 18 milioi euro irabaztea aurrez ikusi du Fagorreko Etxetresna Sailak

Fagor Elektratresnak enpresak urteko datuak eman ditu aditzera: 18 milioi euro irabaztea espero dute. Bestalde, nazioarteko merkaturak irabaztea -bi urte barru salmenten erdira iritsita-, edo aurten Txinan lantegi berria zabaltzea dira helburuetako batzuk. /E.A.



Geysereko langileak greban

Bergarako Geysereko Gastech enpresako langileen ia erdiak lau orduko lan etena egin du eguaztenean eta egubakoitzean. Kooperatibista ez diren langileek egin dute greba. Lan berdina egin arren, kooperatibistek baino gutxiago kobratzea salatu dute. Honakoa da langileen eskaria: aurtengo igoera %6,5ekoa izatea, errelebo plusa kooperatibistenarekin parekatzea eta lan jarduna 10 ordu murriztea. Eguaztenean enkartelada egin zuten MCCko egoitza nagusian, Arrasaten. Fagor Elektratresnak-ek eta Vaillant alemanak elkarrekin sortutakoa da Geysereko Gastech. /E.A.



**IZARRAITZ
INMOBILIARIA**

HIPER EROSKI ZENTROA
Tel./Faxa : 943 79 98 60
mondragon@izarraitz.com
ARRASATE
Zapatuetan egun osoan zabalik

"VALLE DE TENA"
Bigarren eskuko aukera zabala

BIESCAS


• Logela bi, komuna, egongela, sukalde, trastelekua. Estreinatzeke. 83.540 € (13.900.000 Pta)

• Logela bat, komuna, sukalde-egongela, garajea eta trastelekua. Urbanizazioa berdeguneekin. 78.131 € (13.000.000 Pta)

FORMIGAL

• Logela bi, sukalde-egongela, komuna, eskiak gordetzeko lekua. Berriztatua eta jantzia. 93.156 € (15.500.000 Pta)

• Atikoa. Sukalde-egongela, komuna, eskiak gordetzeko lekua, berogailu indibiduala. Jantzia. 57.096 € (9.500.000 Pta)



- OKINDEGIA
- DASTATEGIA
- ERRETEGIA

ERROTA

Goizeko 07:30etatik gaueko 21:30etara zabalik

Zabaldu berria!

Oi-LYR

Arauden Etxea

Deba (Gipuzkoa) • Tel.: 943 58 30 16

Zure ASTE SANTUKO OPORRAK gozatu eta bizi izan nahi badituzu, zatoz!

- **Laztanen tailerra:** masaje sensitiboari esker, gune eta momentu atsegingarriak sortzen ditugu. Gure helburua da norberaren oztipoak ezabatu eta berezotasuna ateratzea.
- **Naturaz gozatzeko irteerak**
- **Elikadura garbigarria eta energetikoa**
Koordinatzailea: Garbiñe Aranguren (Psikologo humanista).

ARAMAIO Dirulaguntza eskaerak eta pintaden gaitzestea ohiko bilkuran

Ohiko bilkura izan zuen udalbatzarrak eguaztenean. Landutako gaien artean, Arabako Foru Aldundiari egin beharreko dirulaguntza eskaerak izan zituen. Hain zuzen ere, Ibargoiako lokalendako, Erretiratuen Egunerako eta Gizarte Zentrokoko perstianendako laguntzak eskatzea aztertu zuen. Horrez gain, udaletxean agertu ziren pintadak gaitzestea landu zuen udalbatzarrak, bai eta Iruñean jokatu den Euskal Pilotaren Munduko Txapelketa dela-eta, alderdiek aurkeztutako mozioak. /U.M.

ANTZUOLA Akiñabeiko errota bisitatzeko aukera egongo da oraingo asteburuan

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Lizarraga auzoko Akiñabeiko errota bisitatzeko aukera izango dugu. Goizeko hamarretatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik. Hantxe egongo da Jose Mari Iturbe erroto ugazaba, errotoaren gaineko eta egin dituen berrikuntzen gaineko azalpenak emateko gertu.

Orain dela zortzi urte erosi zuen Jose Marik errota. Orain, behin konpondu eta berrituta, herritarrek ikusteko aukera izan dezaten nahi izan du Jose Marik. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA Espainiako gerrako gudarien omenezko monolitoari eraso egin diote

Espainiako gerran Intxortako frontean borrokatu zuten gudarien omenez Asentzioko bidegurutzean dagoen granitozko monolitoari eraso egin diote ezezagun batzuek.

Frankistek setiatuta zituzten arren, zazpi hila-betean eutsi egin zuten euskal gudariak euren postuan. Parte hartu zutenen omenez monolitoa jarri zuten 1980an. Besteak beste, Leizaola, erbesteko lehendakaria, eta Beldarrain, Intxortako gudarien buruzagia, izan ziren orduan. /OXEL EROSTARBE



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

San Antonio auzoan eraiki berri dituzten lehenengo bederatzi etxebizitza sozialak zozketatu zituzten atzo, osoko bilkuren aretoan, hainbat herritarren aurrean

San Antonio auzoan eraiki dituzten etxebizitza sozialak zozketatu zituzten atzo udaleko osoko bilkuren aretoan. Auzo horretan eraikiko dituzten hiru blokeetako lehenengoari dagozkio bederatzi etxebizitzok. Blokeak dituen gainerako bederatzi etxeak etxebizitza horiek eraikitzeko bota zituzten zaharretako jabeen esku utzi dituzte. Hogeita zortzi lagunek hartu zuten parte zozketan, aurrez onartutako hogeita zortzi herritarrek eta zozketa notarioaren eta hainbat herritarren aurrean egin zuten.

Ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko arduradunak eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan ziren. /MONIKA BELASTEGI

ARRASATE

Aurtengo aurrekontua eta Egitamu Orokorra aztergai udalbatzarrean

Udalbatzarrak bilera berezia egin zuen atzo, eguena, hain zuzen ere, bi gai garrantzitsu lantzeko: 2002ko aurrekontua, eta Egitamu Orokorra eta hari aurkeztutako alegazioak.

AURREKONTUA

27.043.450,44 euroko aurrekontu orokorra proposatu zion Ogasun batzordeak udalbatzarrari (4.193.138.079 pezeta). Kopuru horretatik, 1.152.535,08 euro AUKERendako izango dira eta beste 1.633.605,97 euro Iturbide Egoitzarendako. Horrela, iazkoa baino %6,3 txikiagoa izango da, udal aurrekontua ere txikiagoa izango delako. Izan ere, AUKERak eta Iturbide bideko igoera izan dute. Horrez gain, esan beharra dago, aurten, Hirigintza batzordearendako behar-rean, Zerbitzu batzordearendako izango dela aurrekontuko partidari handiena. Hurrengo, hori bai, Hirigintzarendako izango da eta Kultura eta Kirolak

batzordearendako, hirugarren kopururik handiena.

EGITAMU OROKORRA

Egitamu Orokorra ere berbagai izan zuen udalbatzarrak; jendaurrean egon eta gero, 172 alegazio eta alderdi politikoen proposamenak jaso ditu-eta. Hortaz, horiek onartu edo ez eztabaidatu zuten zinegotziek.

Edozelan ere, albiste hau idaztean, batzarra egin barik zegoen; hortaz, ez dakigu zein erabaki hartu duen udalbatzarrak. Dena dela, aurrekontuak EA, EB eta Batasunaren aldeko botoekin onartu direnez, litekeena da osoko bilkuran ere onartzea. /UBANE MADERA

Zertzelada

Iazkoa baino %6,3 txikiagoa izango da aurtengo aurrekontua. Izan ere, udal aurrekontua ere txikiagoa izango da aurten.

OÑATI

Erle Beltza espeziea zabaltzeko saiakera egingo dute Arantzazun

Duela hamalau bat urte Gipuzkoako Erlezain Elkar-tekoek laginketa bat egin zuten Arantzazun, eta Erle Beltza espezie nahastu gabea, nahiko garbia, topatu zuten. Urte batzuk pasatu dira, eta zerbait egin beharra zegoela-eta, proiektu bat abian jarri dute. Euren helburua da Euskal Herrian espezie hori zabal-

tzea. Horretarako, Arantzazu inguruan egingo dituzte lehen saiakerak. Mallan eta harrobi zahar-rean inguruan jarriko dituzte erlategiak. Malla-ko entseguak egiteko azarora arteko baimena eman die Udalak. Harrobi zahar-rean, berriz, 2003. urtera arteko baimena dute erlategiak jartzeko. /A.I.



IÑAZIO ZUBIA

Belotza inguruan topatu zuten Erle Beltza espeziea.

ARETXABALETA Herriko Akordeoi Orkestra Europako Txapelketan izango da, Pragan

Gaur abiatu dira Aretxabaleta Akordeoi Orkestra-kideak Txekiar Errepublikako hiriburura. Datozen egunotan jokatu-ko den Europako Akordeoi Orkestren Txapelketan hartuko dute parte.

Europako hainbat herrialdeetatik joandako 26 orkestra arituko dira lehian txapelketan. Euskal Herri- talde bakarra joan da, Aretxabaleta-koa, eta klasikoaren sailean arituko da. Txapelketan parte hartzeaz gain, orkestrakoe-ko turismo pixka bat egiteko aukera ere izango dute. /AMAGOIA LASAGABASTER

ESKORIATZA 'Jakingarriak' aldizkari berritua aurkeztu zuten eguaztenean

Prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean HUHEZIKo Fakultatean, *Jakingarriak* aldizkaria aurkezteko. Erabat berrituta dator 46. alea. baina lehenengo tartea ere badaude: liburu berrien albisteak, artikulu aipagarriak eta adituen aipu esanguratsuak. Gai nagusia, ostera, musikari eskaini diote aldizkari arduradunek: musikak umeen garapenean duen eragina-ri, hain zuzen ere.

Aurkezpenean, aldizkari-ko zuzendari Nerea Altzola eta musikan adituak diren hiru lagun izan ziren. /MIRARI ALTUBE

LEINTZ GATZAGA Toki Eder elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen San Jose egunean

Bost puntuk osatu zuten eguneko gai zerranda. Hurreratutako ongi-otz-ria eman ondoren, Aitor Díaz de Mendibil idazkari-riak aurreko urteko akta irakurri zuen. Bazkideek akta onartu eta gero, 2001eko balantzearen berri eman zuen idazkariak. 3. puntu- an, zuzendaritza taldea berritzeko, bazkideek boz- keta egin zuten. Aurre- rantzean, Alberto Oñate, Luis Mari Zubillaga eta Jon Barandiaran izango dira taldekide berriak. Sei bazkide berri ere izan ditu elkarteak aurten. /A.G.

Zabalik

IÑIGO
RAMIREZ
DE OKARIZ

Baloreak

Gero eta gehiago hitz egiten ari gara aldaketaz beteriko gizarte berri baten aurrean gaude, eta aldaketa horiek bizitzaren esparru ezberdinetan ari garela nabaritzen; batzuk galduz beste batzuk eskuratuz, edo dauzkagunak birmoldatuz, gure nortasunaren balore kolektiboak nahiz indibidualak ustez aldatzen hasi gara.

Zeintzuk dira gaur egun euskaldunon hierarkia baloreak? Familia eta koadrila ei dira, oraindik ere, euskaldunok gehiago baloratzen ditugun balore arloak. Ondoren datoz, garrantzi-ordena honetan, lana, aisialdia, erlijioa ("euskaldun fededun") eta politika. Bai, jaun-andreok, jendeari politikak "bost axola!". Izan ere, komunikabideetan ari diren bezala, badirudi lehenengo dela. Konparatzeko, erlijioa bera baino gutxiago baloratzen da! Globalizatzen ari den mundu honetan, gertuko baloreak gehiago miresten ditugu. Familia, lagunak, lana... dira gaur egungo totemak.

Mirespena sentitzeko beharra ere badugu: abeslari bat, futbol talde bat... baina baita ere gaztetasuna, azalaren kolorea, gorputzaren gardentasuna (kirurgia estetiko kasu)... dira gaur egungo beste beharrianak. Materialismoarekin batera indibidualtasuna da gure gizarte honen beste arlo garrantzitsua. Alegia, nahiz eta gure inguruak gero eta jendetsuagoak izan, gure arteko inkomunikazioa gehituz doa.

Aldi berean, gu baino indartsuagoak diren kultura boteretsuen nagusitasunaz hitz egiten bazaigu ere, badago gure artean geurea dena mantentzeko mugitzen gaituen erreakzioa. Eta berau ez da soilik Euskal Herrian ematen den inertzia, Europa osoan ere gero eta nabarmenagoak dira norberaren nortasuna ezagutarazteko eta indartzeko egitasmo politiko eta kulturalak.

Ez dadila izan berau, dena dela, hori: gure nortasuna amaitze dagoenaren azken hasperena.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIA bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefona: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Torturaren aurka

Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) kale-ratutako txostenak torturaren erabilera sistematikoa salatzea du helburu, hots, zigorgabetasun gunean desagerrarazi beharra aldarrikatzen du. 2001. urtean, 99 euskal herritar torturatuak izan ziren eta 2000. urtetik 2001. urtera kasuak areagotu egin dira, Guardia Zibilei dagokienez, batez ere. Hauek basakeria handia erakutsi dute atxilotuekiko: poltsa, elektrodoak eta buruan kolpeak, esaterako. Tortura fisikoaz gain, psikologikoaren gogortasuna ere agerian jartzekoa da. Legeriak berak bideratzen du torturaren erabilera sistematikoa, zigorgabetasun guneak ahalbideratzen baititu. Hori amaitu beharra dago.

Beraz, egoera hori dela medio, TATEk osatu duen bederatziko puntuko proposamenaren balioa azpimarratu nahi dugu:

1. Pertsonaren atxiloteta eta inkomunikazioa bost egunera luzatzea baimentzen duen legea ezabatzea.
2. Atxilotutako pertsonari dituen esku-bideak murrizten dizkion legeriaren ezabaketa.
3. Atxilotetak irauten duen artean, pertsonaren osasun fisikoa nahiz psikikoa bermada dadin, atxilotuak aukera izatea bere kabuz aukeratzeko sendagileak ikus dezan.
4. Entzutegi Nazionalak dituen konpetentziak bertan behera uztea eskatzen da, atxilotuen instrukzio eta auziperatzea euren

jaioterriko auzitegien esku geratuko litzateke.

5. Habeas Corpus delakoaren ezarpena eta erabilpena. Modu honetan, epailea benetan arduratuko litzateke atxilotuaren egoeraz.

6. Poliziek aurrera eramandako diligentsia ororen deuseztapena, baldin eta atxilotutako pertsonaren osasun psikikoa nahiz fisikoa kaltetua izan bada.

7. Epaile eta agintari judizialen sako-neko ikerkuntza ahalbideratzea tortura testigantzen aurrean.

8. Egoitza polizialak bideokameraz hornitzea atxilotuari ematen zaion tratua berri izateko.

9. Tortura kasuak eragiteagatik zigortuak izan diren funtzionarioen aldeko indultuen desagertzea.

10. Beraz, aipatutako guztia aipatu eta gero, gure helburua erabaki honen berri Euskal Herri osoari ematean datza.

TORTURAREN AURKAKO TALDEA
Euskal Herria

Aberri Eguna, Euskal Kultura Nazionalaren Eguna

Aurtengo Aberri Egunaren ospakizunaren kariatara, Lizarratik Garazira joango den ibilaldia egitera deitu du Abertzaleen Batasunak. Dei hau dela eta, hausnarketa txiki bat egin nahi dugu gertaera honi buruz.

Agian, izenen dantzako politikan murgildutako gizarteko hainbat sektore prest agertuko dira, urtero egiten duten moduan bestalde, aipatutako ibilaldi horretan parte hartzeko.

Oso ondo iruditzen zaigu. Hala ere, aurtengo deiari arreta jartzea eskatuko genuke. Aurtengo deia, gure historian lehenengo aldiz, "abertzaleen batasunaren" izenean egiten da begi bistan, bestelako "musikaririk gabe". Aurtengo deia ez da demokraten batasunaren izenean edo ezker-tiarren batasunaren izenean egiten, abertzaleen batasunaren izenean baizik. Eta hitzek zer edo zer adierazten dute.

Izan ere, jende ugari urtero egiten duen bezala, normalizat hartuko dute deia eta, bestelako hausnarketarik egin gabe,

hara joango dira, ustez betiko molde eta errebindikazioak bertan erreplikatu direlakoan. Eta hori ez da horrela izan behar aurtengoa. Aurtengo deialdia abertzaleen batasunetik egin da eta horrek bere esangura garbia du: aurtengo deialdiak "Nazionala" izan behar du, goitik behera, forman eta edukian. Eta, hala bada, gure ustean, aurtengo ekitaldian, ohiko eskakizun politikoez gain, beste errebindikazio nazionala plazaratu behar da. "Euskal Kultura Nazionala" errebindikatu behar dugu.

Bada garaia Kultura hitza termino politikoan eta nazionalan definitzeko eta horren arabera politikak kulturala egiteko. "Kultura nazio batek (komunitate politiko batek) konpartitzen dituen erreferentzien multzoa da". Jakin badakigu, gizarte barruan gizataldeak edo sektore ezberdinak izaten direla; baina, horien interesen arabera definitutako kulturak ezin du gizarte osoarena izan, gizatalde bakoitzak bere balioak eta sentierak biltzen baititu, ezberdinak batetik bestera. Beraz "Euskal Kultura Nazionala" batzuek eta besteek konpartitzen ditugun erreferentzien multzo txiki baina esanguratsu hori izango da; inork bere buruari uko egin gabe bere egin ditzakeenak.

Konbentzio komunikatiboen arabera, komunikazio sozialean Kultura gizarte baten agerpidea da; barrura begira bere kideen aurrean eta kanpora begira beste-en aurrean bere burua agertzeko gizarteak duen bide eraginkorra. Eta gauza gehiago ere bada Kultura gure testuinguru geopolitikoan. Nazioarteko konbentzio komunikatiboen arabera Kultura komunitate politikoaren legitimazio sistema da; nazio legez existitzeko eskubidea edukitzeko, berezko Kultura-Gizarte osatzea eta hori komunikazio sozialean begi bistakoa izatea derrigorrezkoa da normalean.

Horregatik, liskar nazionalen kasuetan konkistatzaileen lehenengo zeregina da bertako kultura desitxuratzeko, menderatutako kultura haien kultura nazionalan integratzea edo, bestela, deuseztatzea. Eta, horregatik ere, militarik menderatutako-en lehenengo zeregina da bere berezitasun kulturalak azpimarratzea eta, ahal diren bide komunikatibo guztietatik, ideia hori komunikazio sozialean finkatzea.

Era honetan iristen gara gure artean guztiz barneratuta daukagun "zabaltasun", "aniztasun" eta antzeko kontu horietara. Umekeria politiko hutsa da joera hori. Hori egiten dugunean, normalean testuinguru sozial eta geopolitiko kontuan

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



hartu gabe, gure buruaren aurka ari gara. Euskal gizarte barruan agertzen diren adierazpen kultural ezberdinak ongi etorriak izango dira; baina, itxiak izango gara konkistatzaileen agerpidea izateaz gain haien legitimazio sozialaren sistema parte bat diren eta haien eraikuntza sozialean tresna eraginkorrek diren adierazpen kulturelekin. Zabalak izan gaitzake kanpotik etortzen diren langileekin, beti ere bere burua euskal kulturaren murgiltzen baldin badute; baina, konkistatzaileen tresna bilakatzen badira ez gara inolaz ere zabalak. Kolonoekin ez dago zabala izaterik.

Beraz, aurtengo Aberri Egunean "Euskal Kultura Nazionala" konplexurik gabe aldarrikatzea espero dugu, edo, behinik behin, hori da gure eskaera.

JOSE INAZIO LOPEZ DE LUZURIAGA
MIKEL URKOLA ELIZEGI
GOIO URDANPILETA
MIKEL GARMENDIA
JON ANZA
Donostia

Europa Kapitalistaren aurka

Martxoaren 14an, 15ean eta 16an, Bartzelonan, Europako Batasuneko Estatu eta Gobernuaren Gailurra egin zen. Gailurraekin denboran bat eginaz, hamaika jardura zein mobilizazio desberdin eratu ziren. ESK-k Europa kapitalistaren aurkako protestaldiarekin bat egin zuen; hau dela-eta, Bartzelonara joan ginen, autobusez, martxoaren 16ko manifestazioan parte hartzeko.

Europako Batasuna (EB), langile gehienentzat, entelekia hutsa da. Urruti dagoena, opakua, ez oso ulertteraza, eta eguneroko bizitzarekin zerikusi handirik ez duena. Europar izatearen ageriko ezaugarria euroa da; hau izan ezik, oso zaila egiten da ulertzea gure eguneroko bizimoduan EB bezalako gune bateko kide izateak zer dakarkigun.

Irailaren 11ren osteko terrorismoaren aurkako histeriaz baliatuz, Europako Batasunak eraso egin du. Talde terroristen aurka jardutearen aitzakiaz, biztanleriaren gehiengoaren askatasun zein eskubide publikoen aurka eginaz bukatuko du. Terrorismoaren aurkako legedi berria, zeinaren sustatzaile nagusia eta aitzindari aurreratua Estatu espainola izan den, asmoaren badaezpada hautematean sustatzen da, ohi-ko zuzenbide penal bermatzailean oinarritu ordez. Beste era batera esanda, lehen ez zinen errudun, delitua egin zenuela frogatzen ez zen bitartean; egun, ordea, erruduna izan zaitezke epaileen ustez zure portaeran delitu egiteko asmoa sumatzen bada. Aipaturiko ikuspegi hau indarrean da Estatu espainolak ezker abertzalearen gehiengoaren aurka darman borrokan, hala nola beste herri batzuetan etorkinen aurka.

Aditzera eman nahi dugun bigarren adibidea Presidentzia espainiarrak deitzen duen "Europako ekonomien modernizazio eta liberalizazio" atalarekin zerikusia du. Produktzio-estrukturen modernizazioaren bidez enplegu gehiago sortzeko aitzakiarekin, praktikan, "merkatu gehiago" huts-hutsa eskaintzen digute. Ez da gaur goizekoa, zeren azken urteotako politika ekonomiko eta sozial-laboralaren ildo nagusiak horiek izan baitira.

80ko hamarkadatik, Europako Batasuna, talde ekonomikotzarren interesak indartzeko helburuarekin, politika ekonomiko neoliberala gauzatzen ari da. Politika honen helburu nagusi oro, aipaturiko interesen inguruak izan dira: 80ko hamarkadan eman zen merkataritzaren erabateko liberalizazioa, Egonkortasun Ituna eta 90eko hamarkadako kapitalen eragozpenik gabeko mugikortasuna. Eta era berean, lan merkatuaren desarautze, pribatizazio zein presioa.

Merkatua, inolako trabarik gabe, bizitzaren esparru guztietara eramateko jokaerak Ongizatearen Estatua eraitziko du, eta lan merkatua malgutz, langile guztiak behin-behinekoak bihurtuko ditu. Panorama ilun honen aurrean, Globalizazio Kapitalistaren aurkako Mugimenduaren izenaz, hamaika gizarte-agente desberdin batzen dira kapitalaren gehiegikeriei aurre egiteko prest. ESK mugimendu horren kide da, eta mugimenduak antolatutako dituen mobilizazioen alde agertzen da.

ESK SINDIKATUA
Debagoiena

Antton eta besteak askatu!

Mondragon Unibertsitateko ikasleak gaituzue, eta gaurko honetan, ikasle abertzale eta gazte garen aldetik, pasa den astearteko Durangaldeko atxi-

loketak salatze helburuarekin idazten dugu.

Muntaia polizial horretan zazpi gazte atxilotu zituzten, beraien artean gure ikaskide eta laguna den Antton Berrizbeitia durangarra dugu. Salatzekoak ere badira polizia nazionalak erregistroak egiteko orduan hartutako jarrera (gurasoei bultzadak, mehatxuak...), komunikabideek hartutako jarrera, inozentzia presuntzioa bortxatuz eta gezurak lau haizeetara zabalduz. Momentu honetan, gazte hauek inkomunikazio egoeran daude, honek suposatzen duen guztiarekin, hau da, tortura psikologiko eta fisikoak, mehatxuak...

Eskoriatzatik, berotasuna helarazi nahi diegu Anttoni eta beste sei atxilotuei, baita beraien senitartekoei eta lagunei ere.

EKAITZ AIARZAGUENA ARABIOURRUTIA
Durango (Eskoriatzako ikasleen izenean)

Eskolak euskaldundu behar du

Azken hilabeteotan Euskal Herrian Euskarazek, egungo hezkuntza sistemak euskal haur eta gazte guztiei euskararen ezagutza ziurtatzen ez zaiela eta, kanpaina bat burutu du, dagoen hezkuntza ereduaren politika gainditu nahian. Honetarako, Euskal Herri osoko hainbat eragileren babesa eta adostasuna lortu du, guztira 265 elkartetako kideekin buruz buru egonaz.

Euskal Herriko eta Debagoieneko hainbat eragileren babesa lortzeaz gain, Bergaran bai eragile sindikal ezberdinen bai hizkuntza eta hezkuntza eragile nagusien adostasuna eta babesa ere lortu da: besteak beste, ELA, LAB, Jardun, AEK San Martin Agirre ikastetxea, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolak eta Migel Altuna eta Ipintza Institutuak.

Kanpaina bukatu bezain laster, ondorio garbi batzuk jaso dira. Alde batetik, Euskal Herrian bizi garenez eta bertako hizkuntza euskara izanik, eskolak lurralde osoko haurrei euskara bermatu behar die. Bestetik, herriaren aldekotasuna ikusirik, ezin da onartu administrazioek mantentzen duten jarrera entzungorra. Eta azkenik aipatu beharra dago, egun, haur eta gazte guztiak eskolatik euskaldundu gabe iriteten badira, egungo ereduaren gaindipenerako bidea jorratzen hasi beharko dela, honetara-

ko, belaunaldi guztiak euskaldunduko dituen eskola lortzeko neurriak hartu beharko direlarik.

Hortaz, hala eskualdean nola Bergaran EHEk bideratu duen proposamenarekin ados agertu diren euskaltzale, herritar, sindikatu, irakasle... batu eta herrietan jarrera hau indartu eta aldarrikatu beharra dago, orain arte egingandako bidea jarraitu eta egungo ereduaren gaindipenerako bidea sortzen goazen heinean, beldurrak, zalantzak... alboratu eta ausardiarekin aurrera joan behar da, Euskal Herriko haur eta gazte guztiak euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea bermatuko duen eskola eredu eraikiz.

EKAITZ AIARZAGUENA ARABIOURRUTIA
Durango (Eskoriatzako ikasleen izenean)

Autolaguntzarako taldea

AFAGIk (Gipuzkoako alzheimer gaixoen senitartekoen elkarte), Aita Mennirekin lankidetzan, autolaguntzarako taldea sortuko du, Debagoieneko gaixoen senitartekoentzat. Taldekide izan nahi dutenek 655 71 18 37 telefonora dei dezakete edo AFAGIk Arrasateko ibiltokiko 3-5ean duen egoitzatik pasa daitezke, egubakoitzero, arratsaldeko lauretatik seiak arte. Izan ere, ordutegi horretan hartuko ditugu gure laguntzaren premia duten alzheimer gaixoen senitarteko eta lagunak. Ahal izanez gero, hitzordua aurretik egitea eskatzen dizuegu.

EDURNE ETXABE (AFAGI)
Debagoiena

Datorren asteko GOIENKARIA eguaztenean banatuko da

Aste Santua gain gainean daukagu eta opor egunak izango dira gehienentzat. GOIENKARIA eta herri aldizkariak egiten ditugunok ere oporrak hartuko ditugu Aste Santuan. Hori dela eta, datorren astean eguaztenean jasoko dituzue etxean GOIENKARIA eta herri aldizkariak, egubakoitza jai da eta. Hortaz, oporretara joan aurretik jasoko dituzue etxean zuen herriko zein ibarreko albiste guztiak.

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zer iritzi duzu trafiko lege berria zorrotzagoa izateari buruz?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Mikel Garaizabal

ENOLOGOA ETA 'SOMELIER'-A

“Zoritxarrez, orain arte inork ez du ardurarik hartu ardoaren gainean euskaraz eta ganoraz idazteko, horregatik hutsune bat bete dugu”

Mikel Garaizabal (Elorrio, 1972) Elorrioko Mendraka Txakolinaren enologoa da; Galdakaoko Ostalaritza Eskolako irakaslea ere bada; Leioan egin zituen Turismo eta Ostalaritza ikasketak; Biasterin, ostera, Enologia eta Mahasgintza ikasi zituen; eta Madrilen, Somelier. *Mahatsaren orpotik dator. Euskal Herriko ardoak* liburua idatzi berri du. Liburuoi oraingo astean aurkeztu dute Bilbon.

ENEKO AZKARATE

Ardoaren gainean jakin beharreko guztia dakar liburuak?

Liburua bost ataletan zatituta dago. Lehenengo atalean, Euskal Herriko jatorri deitura guztiak agertzen dira: Iparraldeko Irulegi, Nafarroakoa, Errioxakoa, Getaria, Bizkaia eta Arabako Txakolina... Hortaz, Euskal Herriko jatorri deitura guztiak jasotzen dituen euskarazko liburu bakarra da. Jatorri deitura horiek liburuarekin batera banatzen den mapa handi baten kokatu ditugu. Bestalde, bigarren atalak mahasti zaintzari buruzko azalpen sakona dakar: mahatsondoaren ziklo begetatiboa, nola landatu mahatsondoak... Hirugarren atala enologiari buruzkoa da: ardo motak, zela gorde ardoak... Laugarren atala dastatzeari buruzkoa da eta, bosgarrean hiztegitxo bat aurki dezakegu:

Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak, UZEIk eta nik neuk, ardoaren gaineko terminologia sortu dugu, enologian eta mahasti zaintzan adituak diren beste batzuen laguntzarekin. Guztira, 108 orrialdeko gida praktikoa da, hiztegi eta guzti. Diseinu landua dauka eta argazki mordoska bat biltzen ditu. 11,90 eurotan dago salgai liburu denetan.

Zein da liburu honen ekarpen nagusia?

Euskaraz idatzitako modu honetako lehenengo liburu da eta, horrez gain, ardoari eta mahasgintzari buruzko hiztegia ere badakar eta hori ere berria da. Arlo honetan, gaztelaren eta frantsesaren morroi ibili gara beti eta, uste dut, liburu honetan, euskarazko hitz piloa bildu ditugula eta morrontza horri amaiera ematen diogula. Hitzaren esanahia eta gaztelaniaz zein frantsesez zelan esaten den aurki dezakegu hiztegian. Merkatuan ez zegoen honen moduko liburu eta, alde horretatik, berria da. Uste dut, gainera, euskararen normalizazioaren bidean, beste urrats bat eman dugula. Zoritxarrez, orain arte inork ez du arlo hau euskaraz eta ganoraz lantzeko ardurarik hartu.

Zein helbururekin idatzi duzu liburuak?

Lehenengo eta behin ardoari eta enologiari buruzko terminologia argitaratzea izan da asmoa. Bestalde, Euskal Herriko jatorri deitura guztiak jasotzea. Azkenik, ardoaren kultura aberatsa azaltzea.

Zela bururatu zitzaizun liburuak argitaratzea?

Urte asko daramatzat ardoaren gaineko ikastaroak ematen eta, zoritxarrez, neuk bakarrik ematen ditut euskaraz. Orduan, konturatu nintzen hutsune handia zegoela; informazio bila beste hizkuntza batzuetan idatzitako liburueta joan behar izaten nuen beti, zeren, ardoaren eta enologiaren gainean ezer gutxi dago euskaraz idatzita. Horrela hasi nintzen. Hiru bat urte eman ditut kontu honekin. Gainera, zabalkundea izan ezik, beste guztia

geuk egin dugu: liburuak idatzi, argazkiak atera, diseinatu eta maketatu, argitaratu... Dirua ere geuk ipini dugu, Jaurlearitzaren diru laguntza jaso dugun arren. Talde lanean jardun dugu, Maku Garbizu, Gotzon Garaizabal eta ni neu. Horretarako, Adoska Gastronomía Elkarteak sortu dugu. Hortaz, esan genezake, autokudeaketaren bitartez egin dugula liburuak.

Gero eta jakin-min handiagoa dago ardoaren inguruan. Zergatik da hori?

Bai, modan dago, prestigioa ematen du ardoari buruz berba egiteak eta jakitun izateak. Eta, hori horrela bada, euskaldunak ezin gaitezke atzean geratu. Ez dugu ahaztu behar, euskaldunak garela ardo gehien edaten dugunetakoak eta, gainera, edaten dugun ardo kalitate handikoa dela, jeneralean.

Eta geroago eta ardo gehiago edaten dugu?

Ez, jaitsi egin da ardoaren kontsumoa, ardoak geroago eta konpetentzia handiagoa dauka eta gaur egun: garagardoa dela, freskagarriak, pattarrak edo destilatatuak direla... Beraz, kontsumoa jaitsi egin da, baina Euskal Herrian eutsi egin diogu ardo edateko ohiturari. Andaluzian eta, garagardo gehiago edaten da, beroagatik edo. Gainera, euskaldunok kultura bihurtu dugu ondo jan eta edatea.

Lehen baino informazio gehiago dago gaur egun, ezta?

Bai, lehen esan dudana prestigio kontu horregatik da hori. Bestalde, geroago eta gehiago ezagutu eta ikusten ditugu kanpoko ardoak. Lehen Errioxakoak baino ez genituen ezagutzen.

Sasi-jakintsu asko ez dago mundu honetan?

Beno, hori beste edozein arlotan ere ikusten da. Ohiturak asko aldatu dira. Lehen ardo mota batzuk bakarrik ezagutzen ziren eta ohituta geunden horiek bakarrik edatera. Gaur egun, ardoak ere globalizazioa ezagutu du. Globalizazioak gauza onak eta txarrak ekar ditzake. Uste dut ez dela txarra izan ardoaren kasuan,



ARDOA, MODAN

“Ardo modan dago, prestigioa ematen du ardoari buruz berba egiteak eta jakitun izateak. Eta hori horrela bada, euskaldunak ezin gaitezke atzean geratu”

JAKINDURIA HANDIAGOA

“Globalizazioa ona izan da ardoarendako; izan ere, orain, gero eta jakituria handiagoa dago, enologo gehiago dago eta ganorazko ardoak egiten dira non-nahi, ez bakarrik Errioxan”

ARDO GAZTEAK ETA ONDUAK

“Batzuek uste dute egur-lurrinak edo barrikak emandako zaporeak edukitzeagatik, hobeak direla ardoak. Niri, berriz, ardo gazteak, urtekoak, gehiago gustatzen zaizkit”

IPARRALDEKO ARDOAK

“Ustekabe atsegina izan da niretako Irulegiko ardoak dastatu izana. Beste mundu bat da. Hegoaldeko ardo dastatzaileak, hala ere, ez gaude ohituta haren moduko ardoak edaten”



ENEKO AZKARATE

zeren eta gaur egun geroago eta jakituria handiagoa dago, enologo gehiago dago eta ganorazko ardoak egiten dira non-nahi, ez bakarrik Errioxan.

Batez ere, gazte jendeak edaten ditu beste jatorri deitura batzuetako ardoak?

Gazte-gazteek ez dute ia ardorik edaten. Adin batetik aurrera hasten gara ardoak edaten. Esaera zahar batek dio, adinean aurrera goazen neurrian, geroago eta gehiago gustatzen zaigula ardoa eta geurea ez den andrea. Andrearen kontuan ez dizut ezer esango, baina egia da, zenbat eta heldiago izan gehiago gustatzen zaigula ardoa.

Ardo onduak gazteak baino gehiago?

Beno, batak eta besteak ez dute zerikusirik, biak ardoak izan arren. Batzuek uste dute egur-lurrinak edo barririk emandako zaporeak edukitzeagatik, hobeak direla ardoak. Niri, ardo gazteak, urtekoak, gehiago gustatzen zaizkit. Pertsonala da, baina egia da ardo onduak prestigio handiagoa dutela eta gehiago saltzen direla. Mota askotako ardo onduak daude eta nik nahiago dut ardo gazte on bat, merkatuan ikusten ditugun ardo ondu normaltxo edo kaskar bat baino.

Zer behar da enologo ona izateko?

Lehenik eta behin ardoaren ezaugarriak eta printzipioak argi edukitzea..., baina ez dakit zer erantzun, ez da galdera erraza. Ardo dastatzaile ona izateko, ardo desberdin asko dastatu behar dira, sortutako inpresio guztiak adimenean gorde eta ariketak egin behar dira. Ekin eta ekin. Askok eta denetik dastatu behar da, usaimena eta dastamena landu...

Ardo on batek zer ezaugarri behar ditu?

Kontzentrazio aromatikoa eta dastamen-oreka gorde behar ditu, hau da, zapore guztiak harmonizatuta eduki behar ditu eta ardoak ahora eroaten dugunean inpresio batzuk jaso behar ditugu. Askori entzun izan diogu: "Zein ona den ardo hau, ura bezala sartzen da". Bada, nire ustez hori ez da ardo ona. Ardo onak inpresioak izan behar ditu, bai ahoan eta bai sudurrean. Eta, inpresio horiek, hau da, zapore eta

usain guztiak, orekatuak eta garbiak izan behar dira.

Euskal Herriko jatorri deitura guztiak jaso dituzu liburuan. Jendeak, baina, Errioxakoa batez ere, Nafarroakoa eta txakolina ezagutzen ditu batik bat.

Bai, baina Iparraldean ere ardo onak egiten dira. Ustekabe atsegina izan da niretako Irulegiko ardoak ezagutu izana. Beste mundu bat da. Hegoaldeko ardo dastatzaileak ez gaude ohituta haren moduko ardoak edaten. Baina geroago eta oihartzun handiagoa izaten ari dira Europar Irulegiko ardoak. Oso tanikoak dira, gorputz eta kolore askokoak, lurrin amineratu eta frutadunak... Hegoaldeko kontsumitzaileak ez gaude horretara ohituta eta, horregatik, ez dira hain ezagunak hemen. Beltzak eta zuriak, batik bat, baina gorriak ere egiten dituzte. Niri beltzak gustatu zaizkit gehienbat. Ardo oso ondo egiten ari dira, teknika berriekin, eta abar.

Jeneralean ardo onak ditugu Euskal Herrian?

Bai, mundu mailan, kalitatezko potentzia bat gara. Esango nuke, ez dugula ondo ezagutzen eta baloratzen hemen daukaguna. Liburu honen beste helburuetako bat da Euskal Herriko ardoak ezagutzera ematea. Hemen produktu onak ditugu, baina ezagutu egin behar ditugu. Eta ez dugu pentsatu behar Errioxan bakarrik egiten direla ardo onak.

Arabako Errioxakoak ala Errioxakoak hobeak?

Arabako alde egingo nuke. Arabako Errioxan sortzen den mikroklima berezia da eta, horregatik, mundu mailako beste jatorri deituradun ardo handien mailan daude Arabako Errioxakoak. Mahatsondo onak sortzeko ezaugarri klimatiko bereziak ditu Arabako Errioxak: Toloño mendikateak Atlantikoko haize umelak geldiarazten ditu eta, modu honetan, mediterranean haizeak sartzen dira. Lurrak ere garrantzi handia dauka. Ezberdinak dira Arabako Errioxako eta Errioxa Garaiako eta Errioxa Behereko lurrak.



GOTZON GARAZABAL

"Badugu zer ikasi frantziarregandik. Onak dira saltzen"

Bordeleko edo Kaliforniako ardoek Errioxakoek baino ospe handiagoa dute munduan. Zergatik?

Behin Bordelen egon ginenean, hango batek esandakoa ekarriko dut gogora: "Zuek mahastietan ematen duzuen denbora, guk saltzen ematen dugu". Frantziarrak oso onak dira saltzen eta hori izan behar da gure erronka, alegia, ondo saltzen ikastea. Poliki-poliki bagoaz ikasten.

Garrantzitsua da janariaren eta edariaren arteko orekari eustea?

Bai, jakina. Irulegiko ardo beltz taniko bat legatzarekin ezin izango dugu nahastu, janariak edariari irabaziko diolako.

Elorriko Mendraka txakolina egiten diharduzu. Noiztik ari zarete txakolina egiten?

Upeldegi txiki eta gaztea da. Hiru hektarea eta erdi mahatsondo ditu eta Argi-

ñeta gainean daude. Frantziako Chateau txikien antzera, baserriaren inguruan daude mahatsondoak. Astiro goaz, epe luzerako proiektua da. Oraingo urtean, 8.000 litro txakolin atera ditugu, iaz baino %20 gutxiago, baina oso kalitate onekoa izan da uzta. Hemendik urte batzuetara, 20.000 litro ateratzea da asmoa. Teknika berriak aplikatzen ari gara, baina garrantzitsuenak mahastien kokapena da.

Podiuma

Markel Irizar | TXIRRINDULARIA |

Olarra-Consultec taldeko Markel Irizar txirrindulari oñatiarrak (22 urte) denboraldiko lehen lasterketa irabazi zuen zapatuan Oteitzan, Nafarroan. Markelek laugarren denboraldia beteko du aurtun amateur mailan. Iaz bi lasterketa irabazi zituen eta Gipuzkoako erlojupeko txapelketa izan zen, 23 urtetik azpikoetan. Lisboako Munduko Txapelketa eta Nazioarteko Sari Nagusian ere hartu zuen parte. Datorren denboraldian profesionalean aritzeko gertu dagoela adierazi digu.



ARTXIBOA

Markel Irizarrek denboraldiko lehen garaipena lortu zuen zapatuan.

“Oso pozgarria izan da denboraldi hasieran lasterketa bat irabaztea, kontuan izanik oraindik ez nagoela nire sasoirik onenean”

“Aurtengoa amateurretan nire azken urtea izatea espero dut. Nire ilusioa da Euskaltel taldean ibiltzea”

Martitzenean Gorlan ez zenuen zortzerik izan.

Ez. Ihesaldi batean sartzea lortu nuen hasieran beste 20 bat lagunekin batera, eta minutu bat eta hamar segundoko aldea

genuela, Arrasaten katea apurtu nuen. Hortik aurrera ahal nuena egin nuen. Egia esateko, ez da niretako proba oso egokia eta azken partean indar aldetik nahiko justu ibili

nintzen. Ezin izan nuen aurrean egon eta kito.

Zeintzuk dira zure helburuak aurtentzat?

Denboraldi ona egiteko itxaropentsu nago. Ahal izanez gero, lasterketaren batzuk irabazi eta erregulartasunari eustea gustatuko litzaidake. Apirilean, Eibarko Balentziaga Memorialean eta Arabako Itzulian lan ona egin nahi nuke eta maiatzean, Bidasoako Itzulia eta Nafarroakoa jokatu dira. Ea aurrekoekin ibiltzen naizen. Ekainean, berriz, Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako erlojupeko txapelketak jarraian izango dira, hiru astetan. Joan zen urtean Espainiako txapelketa seigarren izan nintzen eta, zaila izango den arren, aurtun podiumera igotzea espero dut.

Iazko denboraldiaren amaieran profesionaletarara igaroko ote zinen hitz egin zen.

Banuen kontaktu bat Italian, baina azken momentuan ez zen fitxaketa gauzatu. Hala ere, espero dut Italian korritzeko ateak itxita ez egotea. Hala ere, nire ilusioa Euskaltel taldean korritzea litzateke. Gertatzen da gure esku ez dela egoten profesionaletarara igarotzea. Faktore asko dira tartean. Dena dela, aurtengoa amateurretan nire azkeneko urtea izateko itxaropena daukat. Ea denboraldi txukuna egiten dudana.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Isidro Vicente
Futbolaria

Isidro Vicentek ezker hegalean jokatzen zuen.


Hamahiru denboraldi egin zituen UDAn.

Espainiako Txapelketa irabazi zuten.

Hirugarren mailan aritu zen nagusiki.

Gasteizko talde batean jokatzen ari zela, jubenil mailan, UDAn Isidro Vicente fitxatu zuen: “Muruzabalekin batera etorri nintzen Aretxabaletara. Sasoi hartan bigarren erregionalean zegoen taldea, eta Juanito Arriaran entrenatzailearen eskutik oso urte onak egin genituen”. 1971-72 denboraldia borobila izan zen UDarentzat: Gipuzkoako amateurren txapelketa irabazi zuten, finalean Elgoibarri 5-1 nagusitu ondoren, Bergaran (Vicentek hiru gol egin zituen partidua hartan); hirugarren mailara igoera ere lortu zuten, Tolosari, Atotxan, 2-0 irabazi eta gero (Vicentek penaltiz gol bat egin zuen) eta, era berean, Espainiako amateurren txapelketa eskuratu zuen UDAn: “Daukadan futboleko oroitzapenik onena hori da. Murtziako Imperial taldeari 2-1 irabazi genion Ibarri, eta itzulerako partiduan, luzapenean, binakoa egin nuen. Oso talde ona izateaz gain, primeran konpontzen ginen elkarrekin”. Vicentek ezker hegalean jokatzen zuen eta 13 denboraldi egin zituen UDAn: “Hercules edo Valladolid lehen mailako taldeek nigan interesa azaldu zuten, baina ez nintzen joan hemen gustura nengoelako. Orduan inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen Ibarri. Domekan futbola besterik ez zegoen”. Jokalari azkarra eta errematatzaile bikaina, gol asko egin zituen. /E. M.

“Espainiako Txapelketa irabazi izana, ahaztezina”



Isidro Vicente • Aretxabaleta • 1951

Iñigo Urretxua garaile
Gorlako Igoeran

Olarra-Consultec taldeko Iñigo Urretxua algortarrak irabazi zuen martitzenean jokatutako Gorlako Igoera. Aurtun, ibilbide berria izan dute txirrindulariek, 90 kilometrokoa, eta proba ikusgarria izan zen. Urretxuak lau segundoko aldea atera zion helmugan Antton Luengo bere taldekideari. 157 txirrindulari irten ziren, eta horietatik, 66 bakarrik iritzi ziren helmugara.

BABESLEA



VENTANAS
SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

Oñatiko Duatloia zapatuan

Korrikako proba herri barruan izango da eta bizikletan Deskargako itzulia egingo dute

Bihar, zapatua, Oñatiko Duatloia XI. ekitaldia jokatu da. 16:00etan hasiko da. Oñatiko Tritaloi Taldeak antolaturiko proban Debagoieneko 60 lagun inguruk hartuko dute parte.

Partaideek zortzi kilometro korrika, 40 bizikletan eta beste lau korrika egin beharko dituzte zapatuan. Herri barruan prestatutako zirkuituari (lau kilometrokoa) bi itzuli eman ondoren, bizikletako probari ekingo diote triatletak: nobedade gisa, Deskargako itzulia Antzuolatik igota egingo dute aurreten. Oñatitik irten eta gero, Bergara, Antzuola, Deskarga, Legazpi eta Udanatik igaroko dira, eta helmuga Oñatin izango dute. Amaieran, korrikako zirkuituari beste itzuli bat egin beharko diote.

DEBAGOIENKO PARTAIDETZA, GORA

Zapatuko proban, besteak beste, Oñati Triatloi Taldea eta Antxintxika Debagoiena izango dira lehian. Oñatiko taldeak egindako deialdiak erantzun bikaina jaso zuen, eta 19 lagun ari dira, hiru emakume tartean. Antxintxika Debagoiena taldean, berriz, besteak beste, Gatzaga, Arrasate, Bergara eta Antzuolako triatletak bildu dira aurreten, 40 guztira. Antxintxika taldean bi emakume eman dute izena.

Abian da dagoeneko Euskadiko Triatloi Federazioaren zir-



Zuhaitz Ezpeletak Basauriko Duatloia irabazi zuen, eta taldeka Debagoieneko taldea nagusitu zen.

kuitua. Intxaurren eta Basauriko duatloiak jokatu dira orain arte eta Antxintxika Debagoienak bietan taldekako sailkapena irabazi du. Banaka ere emaitza bikainak lortu dituzte. Domekan, Basaurin, Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak lehen postua lortu zuen (1:12:23) eta 10 lehenen barruan

beste lau lagun sailkatu ziren: Jon Aperribai arrasatearra hirugarrena izan zen, Iker Larrea eta Aitor Larrea anaia antzuolarrak bosgarren eta zazpigarren izan ziren, hurrenez hurren, eta Aitor Peñagarikano antzuolarra bederatzigarren izan zen. Korrika 5,5 kilometro, bizikletan 23 eta bes-

te 2,6 kilometro korrika izan zituzten Basaurin. 160 lagun izan ziren. Oñatiko taldeko neskek bikain ibili ziren. Gurutze Altuna hirugarren izan zen (1:31:24), irabazlearengandik bost minutura, eta Leire Altube seigarren (1:35:49).

EDU MENDIBIL

Kirolabur

PILOTA/BERGARA

Profesional mailako pilota jaialdia izango da zapatuan Bergarako Udal Pilotalekuan, 16.30etik aurrera. Imaz eta Patxi Ruiz aurrez aurre izango dira eskuz banakako txapelketaren barruan. Irabazleak Olaizola II.aren aurka jokatu du hurrengo kanporaketa, martxoaren 31n. Beste bi partidu izango dira zapatuan Bergaran: bigarren mailako eskuz banakako txapelketan Nalda III.ak eta Leizak neurtuko dituzte indarrak eta jarraian Tirapu-Beloki eta Alustiza-Barriola bikoteen arteko norgehiagoka izango da.

ARKU-TIROA/OÑATI

Oñatiko Txantxiku Arkulariak taldeak arku-tiro ikastaroa antolatu du. Egubakoitzean izango da, Larraña Institutuko kirol kantxan, 18:30etik aurrera. Argibideak, ondorengo helbidean: TxantxikuArkulariak@euskalerrria.org.

KIROLA EUSKARAZ

Eguaztenean Kirola Euskaraz programako fitxa didaktikoak aurkeztu zituzten Elgetako Udaletxean. Lore Leanizbarrutia Diputazioko Euskara Zuzendaria eta Patxi Basauri Mankomunitateko Kirol Batzordeko ardura-duna izan ziren aurkezpenean. Prestaketa fisikoko fitxak Danel Fernández de Jauregi elgoibartarrak egin ditu eta aerobicekoak, berriz, Silvia Arribas plazentziarrak eta Leire Cano eta Onintza García donostiarrek prestatu dituzte.

Debagoieneko Kirol Zerbitzuen berriak

2002ko udaberriko ikastaro eskaintza


Aurtengo udaberriari begira, Debagoieneko Kirol Zerbitzuok ikastaro sorta bat antolatu dugu. Ikastaroak Oñatin, Bergaran, Aretxabaletan eta

Urturin (Errioxa) izango dira. Betiko moduan, gure helburua ahalik eta jende gehienarengana heltzea da eta, era berean, ibarreko kirol teknikarien hezi-

ketarako erabilgarriak izatea. Gainera, izena emateko orduan kontuan izan ditugu Kirol Zerbitzuetako bazkideak. Prezio murriztuak izango dituzte gure baz-

kideek. Edozelan ere, argibideak herri bakoitzeko Kirol Zerbitzuan jaso daitezke. Beheko koadroan duzue gure eskaintza. Ondo pasa eta asko ikasi!

IKASTAROAK	DATAK	LEKUA	PREZIOA	ORDUAK	TITULUDUNA	HIZKUNTZA
Ur azpikoa	Maiatzaren 13tik 25era	Bergara	295 € - 265 €	50	Bai	Euskaraz
Golfa (jarraipena) Golfa (hasiera)	Martxoak 16 eta 17 Martxoak 23 eta 24	Urturi	60 € - 48 €	8	Ez	Gaztelaniaz
Patinajea	Martxoak 2, 9, 16, 23	Aretxabaleta	15 € - 12 €	8	Ez	Euskaraz
Saskibaloiko Eskola Kirola monitorea	Zehaztu barik	Bergara	Zehaztu barik	Zehaztu barik	Ez	Euskaraz
Arnasketa-Erlaxazioa	Apirilak 26 eta 27 Maiatzak 3 eta 4	Oñati Oñati	30 € 24 €	12	Ez	Gaztelaniaz
Joera Berriak	Apirilak 13 eta 20	Oñati	60 € - 48 €	16	Ez	Euskaraz



Etorkizunari
aurrea hartu
diogu.
Debagoiena
informazioaren
gizartean

e-debagoiena
ETORKIZUNA HURBILTZEKO TE ACERCAMOS EL FUTURO

Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko martxoaren 22a

Kultura
eta
aisialdia



Martxoaren
22tik 27ra

Maiatzaren 11n

Dantzara **plazara** Bergaran

lehengo erako erromerian parte hartzeko aukera izango dugu, lehengo jantzi eta guzti



Euskal Dantzarien Biltzarrak eta Bergarako bi taldek, Moises Aspiazu dantza taldeak eta Abarka elkarteak, hain zuzen ere, jaialdi polita antolatatu dute datorren maiatzerako: euskal erromeria bat, lehen egiten zen erara. Horrek esan nahi du parte hartzaileek euskal jantzi tradizionalak soinean dituztela joateko deia egin dutela antolatzaileek. Baina euskal jantzi tradizionalak aipatzerakoan, ez du esan gura beti ikusten ditugun tantodun arropak, baizik eta oso bestelako jantzi batzuk, beharbada, ez hain ikusiak, baina horiek bai, gure arbasoek eramaten zituztenak. Erromeriarako jantzia prestatzeko, segi irakurtzen! /LEIRE KORTABARRIA



OHITURAK/ ERROMERIA ERRALDOIA PRESTATZEN DABILTZA BERGARAN

Dantzara plazara, Bergaran!

SASOI BATEN EGITEN ZITUZTEN ERROMERIEN MODUKO JAIA ANTOLATZEN DABILTZA MAIATZERAKO, JANTZI TRADIZIONAL ETA GUZTI



Musika, dantza eta gure arbasoek eramaten zituzten euskal jantzi tradizionalak izango dira maiatzean egingo den jai egun bateko protagonistak. *Dantzara, plazara, Bergaran* deritzen egitasmoaren eskutik, lehengo moduko erromeria izango dugu maiatzaren 11n.

Orain dela hiru urte, Euskal Dantzarien Biltzarrak erromeria erraldoi bat antolatzeko ideia izan zuen, aspaldiko ohitura hori berreskuratzeko. Ideia zen ez bakarrik erromeria hutsa egitea, baizik eta gure arbasoek erromeria haietara eramaten zituzten jantziak soinean eramatea.

Errenterian izan zen hura. Biltzarrak Euskal Herri osoan zehar eraman gura zuen Erromeria Erraldoia, aldiro-aldi.

“Debagoiengan zeharo galduta dagoen ohitura bat berreskuratzea da helburua”

Baina proiektua geldirik geratu zen. Arrakasta handia izan zuen erromeria hark, eta handik aurrera ere ospatzen jarraitu dute Errenterian, herrirako bakarrik.

ERROMERIA IBILTARIA

Aurten, erromeria hona ekartzea erabaki zuten Moises Azpiazu dantza taldeak eta Abarka elkar-teak, Euskal Dantzarien Biltzarraren baimenarekin, Erromeria

Erraldoi ibiltari hori Biltzarraren egitasmoa da-eta. Moises Azpiazu taldekoek ez dute bazterten, jaiak arrakasta izanez gero, antolatzen jarraitzea, “baina hori ez litzateke Erromeria Erraldoia izango, herriko erromeria baizik”.

Oraingoz, behintzat, nahiko lanpetuta dabilta aurtengoa prestatzen. Gogotsu dabilta; izan ere, “zeharo galduta dagoen ohitura bat berreskuratzea da helburua”, haien hitzetan. Taldekoek diote erromeriaren ohiturak, batez ere, Debagoiengan izan duela gainbetera handiena. Bestalde, gure arbasoen janzkera ohiturak berpizteko aukera izango dugu. Oso erraza da, dauzkagun baserritar jantziak molda ditzakegu-eta.

LEIRE KORTABARRIA

Tantodun jantzirik ez

Erromeriaren antolatzailen esanetan, nahasmen handia dago euskaldunon jantzi tradizionaleri dagokienez; izan ere, oso zabaldua dago tantodun baserritar jantzia euskaldunon jantzi originala den ustea. Uste ustela, itxura denez.

“Kontua da jantzi horiek ez direla euskal baserritarrek benetan eramaten zituztenak, nahiz eta jendeak horrela uste”, esan digute Noemi Larrañagak eta Dani Azpiazuk, Bergarako antolatzaitariko batzuek. Baina horiek ez badira jatorrizko

jantziak, zergatik egin dira hain ezagun? Zer dela-eta hedatu da hainbeste horien erabilera herri jaietan? “1960tik aurrera, lehenengo euskal talde koreografikoak osatzen hasi zirenean sortu ziren jantzi horiek”, azaldu digute Moises Azpiazu dantza taldeko arduradunek. Horrek eragina izan zuen: jendeak arropa haiek ikusi, jatorrizko jantziak zirela sinetsi, eta horiek eskatzen hasi zen dendetan. Itxura denez, bateren batek jantzi horiek egin eta prezio onean saltzeko aukera paregabea ikusi zuen.

Belaunetik beherako gona

Gona motzegia baldin bada, beste edozein koloretako oihal zati batekin osa dezakezue. Garrantzitsua da gona orkatiletaraino luze izatea. Dantzarako, motzagoa eraman daiteke, baina beti belaunetik beherako luzera errespetatu behar da, eta ez da kate orratzarekin jaso behar.

Orrazkera, adierazgarri

Emakumezkoen orrazkerak eta buruko apaingarriak haien egoera sozial, ekonomiko eta zibilaren adierazgarri ziren. Oraindik ezkondu barik zeuden neska gazteek ile-kordak eramaten zituzten, baina ezkonduakoa, ilea jasota eramaten zuten, inoiz ez moztuta.

Gizonezkoen janzkera

Gizonezkoek galtza marradunak erabiltzen zituzten, gris eta beix kolorekoak. Gainera, harizko alkandora erabiltzen zuten, tolestu eta lortzekin, eta inoiz ez bainikekin. Gerrikoa, normalean, beltza zen. Txalekoa ere eramaten zuten, eta txalekoaren gainetik edo azpitik, blusa bat.

Egoera zibila, zapien islatuta

Emakumezkoen buruko zapiak ere hainbat esanahi zituen, hortaz, kontu handiz aukeratu beharra zegoen. Ezkongabeak zapi barik edo kolorezko zapiarekin joaten ziren; ezkonduak, zapi zuriekin; eta alargunek edo ezkontzera zihoazen emakume batzuek, berriz, zapi beltza ipintzen zuten.

Txapela eta lepokoa

Txapela aukeratzekoan ere kontu handiz ibili beharra dago; ez du edozein mota edo neurriko txapelak balio. Izan ere, txapela txikia izaten zen, burua justu-justu estaltzeko modukoa. Txapelaz gain, lepoan zapia jartzen zuten gizonezkoek, kotoiz egindakoa, normalean.

Pololoak eta barruko gona

Emakumezkoen barruko gona eta pololoak ere zaindu beharrekoak dira. Pololoak, adibidez, belaurainokoak izaten ziren, beti zuria eta apaindura ederrekin; azpiko gonak gonaren luzera berekoak ziren, eta galtzerdiak, belaurainokoak, udan kotoizkoak eta neguan artilezkoak.

DISKOAK / MONDRAGOEN TALDEAK LAN BERRIA AURKEZTU DU

Ekon-en soinu zuzenena

'SALATZEN DUT' DISKOAN ABESTI LABURRAGO ETA ZUZENAGOAK ESKAINTZEN DITU EKON TALDEAK

Arrasateko Ekon taldeak bere hirugarren diskoa, *Salatzen dut*, kaleratu berri du. Hainbat aldaketaren ondoren burututako diskoa da, eta hori nabarituriko dute entzuleek. Ohi bezala, eduki sozial handiko letrak idatzi dituzte, baina askoz soinu zuzenagoaren bidez helarazten dizkigute.

“Aurreko biak baino askoz ere disko zuzenagoa da, batez ere, musika aldetik; horrela, lehenengo aldiz entzuterakoan errazago heltzen den diskoa da”. Horra hor zelan definitzen duen Ekon taldeak bere azken lana, *Salatzen dut*.

Joan den astetik dago kalean disko hori. Gor etxeak plazaratutako lana dugu, eta Soziedad Alkoholika taldeko Jimmy ekoizle lanetan ibili da. Bestalde, kolaborazioak izan ditu Ekon-ek: Scratch eta Seletah Kolektiboa taldeetako Zigor; Pi-It-eko Aitor; eta Sorkun, Kashbah taldekoa, besteak beste.



Juan, Heloy, Yago, Xabi, Iñigo, Ion, Naiara eta Ines dira Ekon-eko partaideak.

GOR DISKOAK

ALDAKETA HANDIENA, AHOTSA

Soinu estilo berria talde barnean izan diren aldaketaren emaitza da, hein baten, behintzat. “Ahotsa aldatu dugu, eta musika talde baten, ahotsa ia %50 da”, dio Ekon taldeko Yagok. Juan Sangre da orain abeslaria, eta hona hemen bere iritzia: “Ahots aldaketa da jendeak gehien sumatuko duena. Erregistro desberdinak entzuteko aukera izango du”. Ez hori bakarrik: orain, ahotsa banatuagoa agertzen da, hau da, orain, Naiarak eta Inesek, tal-

deko bi neskek, pisu handiagoa dute abestietan.

Juanen ustez, abestiak konposatzeko modua ez da larregi aldatu; bai, ordea, letrak. “Horiek ere askoz zuzenagoak dira. Lehen, abestiak puztu egiten genituen apur bat, informazio gehiegi ematen genuen. Orain, berriz, abestiak motzagoak dira, eta hori, batez ere, zuzenekoekin pentsatuta egin dugu”, dio Juanek.


DISKO BIRIBILENA

Diskoa konposatzeko modua aldatu badute, berdin gertatu da grabaketa prozesuarekin. Oraingoan, lasaiago ibili dira Ekon-ekoak: “Urriari hasi ginen grabatzen, eta lehenengo oinarritzko soinua grabatu genuen, eta gero, ahotsak, sintetizadoreak, samplerrak, eta abar landu genituen; bila genbiltzan soinua lortu dugu”, esaten dute taldekideek.

Ekon-en ustez, hau da euren diskorik biribilena oraingoz. Aurrekoak baino errazago iristen den soinua egin dute. Gainera, internet gune bat prestatu dute: www.ekonetrnies.com. Orain, zuzeneko emanaldien txanda da, eta Euskal Herriko txoko guztietan jotzeko asmotan dabilta Arrasateko Ekon taldekoak.

LEIRE KORTABARRIA

NIREAUKERA



'EL LUGAR Y LA VIDA' Raúl de la Rosa

Etxearen osasunaren inguruko liburua dugu hau; izan ere, askotan, estetikaren mesedetan, alde batera uzten dugu bizi garen lekuaren osasuna. Liburuak hainbat gai lantzen ditu: etxeen orientazioa, kokagunea, etxeak eraikitze eta osatzeko erabiltzen ditugun materialak, margoak, eremu elektromagnetikoak... Bai gure eta bai gure ingurunearen mesederako, bizilekuan kontuan hartu beharreko hainbat gairi buruz aholkuak ematen dizkigu. Liburua mesedegarri gerta dakiguke bizitzako hainbat unetan, eta gainera, jarraipenik eskatzen ez duenez, erraz irakurtzeko liburua da. /OXEL EROSTARBE.




Rebeca Ubera

Elgetarra da eta 30 urte ditu. Maya ingurumen taldeko bazkide da.

KALERATUBERRIAK / Iban Arantzabal

LIBURUA / Prosa eta poesia




URRUZUNO LEHIAKETA

Askoren artean
Eusko Jaurlaritzan
230 orrialde

Iraitz Agirre, Jon Haitz Legarreta, Iñaki Arruti, Iratxe Esnaola, Maite Arozena, Eneko Lekuona, Mikel Babiano, Paloma Quintana, Ainhoa Ugarteaguru edo Kati Olaizola ezagunagoak izango dira hemendik aurrera, Urruzuno Lehiaketako irabazleak izan direlako.

Urruzuno Literatura Lehiaketak hamasei urte bete ditu, eta horrenbeste urtek trinkotasuna eman diote lehiaketari. 464 lan jaso dituzte aurten, bi mailatan bereiztuak. Horietatik, 357 prosan eta 107 olerkian. Datu horiek eta kalitatea dira lehiaketako mailaren adierazle onenak.

LIBURUA / Ipuina



TRAPU ZIKINAK MANOLITO LAUBEGI

Elvira Lindo
Alfaguara
160 orrialde

Imajinatzen duzu zure aita erromatar jantzita? Bada, horixe bera ikusi zuen *Manolito*-k bere begiekin Hiru Erregeen kabalgatan. Izan ere, beti bezala, gure *Manolito*-k hainbat pasadizo berri eta barregarri kontatuko dizkigu. Gabon zirraragarriak bizi izango dituzte gure protagonistak eta haren lagunek: *Cara-banchel Alto*-ko auzoan zehar ibiliko dira gabonsari eske, aberastu nahian, *Ergela* galduko dute kalean, eta gainera, *Manolito*-k maitasuna ere bizi izango du: *Melody Martinez* du izena eta oso neska bitxia da. Josu Goikoe-txeak egin du itzulpena.

DISKOA / Denetarik



GAZTEMANIAK

Denetarik
11 talde
11 kantu

Gaztemaniak-en CDa da hori. Euskal Herriko hainbat talde daude bertan, eta horrelakoek izaten dute arriskurik ere. Hainbat estilotako taldeak, hamaika, hain zuzen ere. Eta horrek eragin ona zein txarra izan dezake, betiere, entzulearen arabera. Kasu honetan egokia da, eta adostutako hurrenkerak lagundu egiten du.

CD horretan dauden taldeak: Poliester, Fits, Mal de Muchos, Electrogaze, Natural project, Minimal fun, Cactus flower, Folkcore eta Aerosol. Aretxabaletako bi talde daude horien artean: Serial Number eta Igor San Juan, hain justu.

Martxoa: 22-29

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ARAMAIO

► **Komeriz komeri** antzerki-lana eskainiko du Horratx taldeak bihar, zapatua, hilaren 23an, kultura etxean, 22:00etan.

ELORRIO

► **Komeriaka Emakumezkoena** antzerki-lana jokatu du Tentazioa Produksioa taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.
► **Jordiet Contraataca** antzezilana eskainiko du Pot de Plom Teatre taldeak bihar, zapatua, martxoaren 23an, Ateneoan, 23:00etan.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Ray Bueno ipuin kontalariaren saioa** izango da zapatuan, martxoaren 23an, liburutegian. 18:00etan, 3 eta 6 urte artekoendako izango da; 18:30ean, 6 urtetik aurrerakoendako.

ARRASATE

► **Euskal Herrian Euskaraz taldeak kale bilkura** deitu du gaurko, egubakoitza, martxoak 22. Seber Altube plazan izango da, 19:00etan. Segidan, muralak margotuko dituzte.
► **Energia berritzagarri ikastaroa** egiteko aukera dago. Lau modulutan banatuko da, eta 20 lagun onartuko dituzte moduluko. Apiriletik aurrera izango da. Izena emateko, deitu 679 69 33 18 edo 943 71 54 53 telefono zenbakietara.

BERGARA

► **Eskualde kale agerraldia deitu du Euskal Herrian Euskaraz taldeak** biharko, zapatua, martxoak 23. Plazatik irtengo dira, 12:00etan.
► **Mendekoste jaietan herri bazkaria antolatze bilerak** izango da datorren martitzenean, martxoaren 26an, kultura etxean, 19:00etan. Herriko talde eta koadrila guztiak daude joatera gonbidatuta.

EUSKAL HERRIA

► **EHGAMek, Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak, Astigarragako sagardotegi baten afora** antolatu du martxoaren 23rako. Izena emateko, 943 47 26 17 telefonora dei dezakezue.

OÑATI

► **Mikel Ganuza preso politikoa-ren eskubideak aldarrikatzeko manifestazioa** izango da bihar, zapatua, martxoaren 23an, plazan, 19:30ean.
► **Atzerrian egonaldiak eta ingelesa eta frantsesa ikasteko hainbat programa** antolatu ditu Txantxiku ikastolak. Argibideetarako, deitu 943 78 12 04 telefonora.

MUSIKA

ARAMAIO

► **Jose Santos de la Iglesia Ugarte organo jotzaileak** kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, hilaren 23an, San Martin elizan, 20:30ean.

ARRASATE

► **Arrasate Musikalen kontzertua** izango da gaur, egubakoitza, euren egoitzan, 18:30ean.
► **Onddoren** kontzertua izango da gaur, egubakoitza, martxoaren 22an, Olarte kaleko Jai Zale tabernan, 22:30ean, Kultura Errota egitasmoaren barne.
► **Oskorri taldeak** bere disko eta ikuskizun berriak aurkeztuko ditu bihar, hilaren 23an, Amaia antzokian, 22:30ean.
► **Once Varas flamenko fusio taldeak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, Otorala kaleko Gambrinus tabernan, 00:00etan.

BERGARA

► **Discipulos de Dionisos, Super-**

guarras eta Supercools taldeen kontzertua izango da martxoaren 23an, gaztetxean, 22:30ean.

► **Audience talde gernikarrak eta Miztura talde donostiarrak** kontzertua eskainiko dute eguaztenean, hilaren 27an, gaztetxean, 22:30ean.

ELGETA

► **Prut 69 Ourenseko taldeak eta Garrasika talde nafarrak** kontzertua eskainiko dute eguaztenean, hilaren 27an, gaztetxean, 23:00etan.

OÑATI

► **Nikki Sudden kantautore australiarrak eta Serial Number talde debagoiendarrak** emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, hilaren 22an, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Konpas eta Xaxa Flamenkoko perkusio ikastaroa** antolatu du Iñaki Bruñak. Apirilaren 15ean, 22an eta

29an eta maiatzaren 6an eta 13an izango dira eskolak, 18:00etatik 20:30era. Angel López izango da irakaslea. Matrikularen prezioa 21 eurokoa da. Informazio gehiagorako, deitu 943 79 80 25 telefonora (Iñaki).

BERGARA

► **Zortzi eta hamalau urte arteko ume eta gaztetxoendako antzerki ikastaroa** antolatu du Virago antzerki taldeak, apirilaren 6tik ekainaren 22ra arte. Izena emateko, jo kultura etxera edo deitu 943 77 91 59 telefonora.

► **Langabeendako Argiketari Industrial** ikastaroa antolatu du udalak. Parte hartzeko baldintzak: adinez nagusia eta langabea izatea. Argibideetarako, jo Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzura.

EUSKAL HERRIA

► **Nekazaritza arloko etengabeko heziketa ikastaroak** antolatu ditu Mendikoik, Eusko Jaurilaritzako Heziketa, Sustapen eta Landa Garapenerako Sailak. Argibide gehiagorako, deitu 945 41 03 03 telefonora edo kontsultatu www.mendikoik.net orria.

OÑATI

► **Malabare tailerra** antolatu du gaztelekuak, apirilaren 15etik 26ra. Orduetgia eta egunak erabakitze bilerak egingo dute apirilaren 12an. Dena dela, izenemate epea zabalik dago. Horretarako, jo gazte informazio bulegora.

► **Funky-hip hop saioa** antolatu du gaztelekuak, apirilaren 27rako. Izenemate epea zabalik dago. Horretarako, jo gazte informazio bulegora.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Akiñabei errotaren gaineko** erakusketa gidatua egingo du Jose Mari Iturbek asteburu honetan, hilaren 23an eta 24an, erroten bertan, 10:00-14:00 eta 16:00-18:00.

BERGARA

► **Javier Juarros** margolari bilbotararren olio, pastel eta akuarela erakusketa ikusteko aukera dago Masterrekako Nahikari tabernan.

OÑATI

► **Basoen baso** erakusketa antolatu du natura eskolak. Olakuo egoitzan izango da, apirilaren 28ra arte, honako egun eta orduetan: astegunetan, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

► **500 urtez frantziskotarrak Arantzazun** izeneko erakusketa zabalik dago, irailaren 9ra arte, Arantzazuko santutegian. Argibide gehiagorako, honako internet gunea bisita dezakezue: www.arantzazu.org.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Argazki-matematika lehiaketa** antolatu du Arrasateko Institutuak, bere 25. urteurrena dela-eta. Lehiaketaren oinarriak Institutuan bertan edo Monterronen jaso ahal izango dituzue.

BERGARA

► **XVII. Koldo Eleizalde literatura lehiaketa** antolatu du udalak. Bergaran jaiio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Ipuinak edo olerkiak bidal daitezke. Argibide gehiagorako, jo Bergarako udaleko euskara zerbitzura.

EIBAR

► **Gazteen XVII. Eibarko Hiria Ipuin Lehiaketa** antolatu du Udalak. 14tik 25 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Argibideetarako, deitu 943 70 71 53 edo 943 20 68 45 telefonoetara.



► JAIK

ERRAMU ZAPATUKO FERIA ASTEBURU HONETAN BERGARAN

Urtero moduan, Erramu Zapatuko Feria izango da bihar, hilak 23, Bergaran. Feria bera izango da, duda barik, protagonista nagusi; baina goizetik gauera bitartean, bestelako makina bat ekintza egiteko aukera izango da Bergaran. Azoka 09:30ean zabalduko dute, eta abelburuak, Eusko Labela duten produktuak eta makinaria ikusi ahal izango dira. 12:30etik aurrera, Ibargarain, Txorimalo Lehiaketako sari banaketa eta bigantxen enkantea izango dira. Aranzadi ikastolan, aldiz, bertso ekitaldia. 17:30ean, jolasak antolatuko dituzte; eta 22:15ean, pilotalekuan, bertso jaialdia.

Non: Bergaran. **Noiz:** Martxoaren 23an, zapatuan. **Ordua:** 09:30etik aurrera.



ELGETAKO GAZTETXEAREN URTEURRENA

Martxoaren 23an, 15:00ak inguruan, bazkaria izango da eta segidan, Antzara Jokoa; 18:30ean, triki-poteoa egingo dute; eta eguna biribiltzeko, Kataluniatik etorritako Rubens 28 eta Ensaladilla Sound Sistem taldeen kontzertua izango da, gaztetxean bertan, 23:00etan.

EUSKAL HERRIA

► **Erein, Euskadiko Kutxa eta Donostia Opera Prima** narratiba sariak antolatu ditu Erein argitaletxeak. Euskaraz idatzitako lanak bakarrik onartuko dituzte, 100 orrikoak gutxienez. Ezizen sistemaz sinatutako lau kopia bidali behar dira honako helbidera, urte bukaera baino lehen: Erein, Tolosa Etorbidea 107, 20018 Donostia.

► **Kimetz Emakumeen Kultura eta Gizarte Taldeak VIII. kontakizun lehiaketa** antolatu du. Bost eta hamar orri arteko ipuinak onartuko dituzte. Apirilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dituzue lanok honako helbidera: Barrena Kultura Etxea, Nikolas Lekuona enparantza z/g, Ordizia.

► **Esaera zaharren IX. txapelketa** antolatu dute Nikola euskaltegiak eta Sopelako AEK-k. Apirilaren 27an izango da. Parte hartzaileak bi, hiru edo lau laguneko taldetan aurkeztu beharko dira. Izena emateko mugaeguna apirilaren 22a izango da. Argibideetarako, deitu 94 676 48 76 telefonora.

GIPUZKOA

► **2002ko Donostiako Orfeoia eta Euskal Herriko Unibertsitatearen saria** antolatu dute, bi helbururekin: musikari buruzko ikerketa piztea eta sustatzea; eta musikaren sorkuntzaren alorrean nabarmendu diren egile handien ibilbidea eta lana modu euro eskuratuko ditu. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibideetarako eta izena emateko, deitu 943 12 22 39 edo 943 01 85 08 telefonoetara.

BIDEOA

BERGARA

► **Underground filma** eskainiko dute domekan, martxoaren 24an, gaztetxean, 18:00etan.

MUSEOAK

ARETXABALETAKO

► **On Jose Maria Arizmendiarieta museo-gela.** Otalora jauregian.

ESKORIATZA

► **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalgo, 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. 943 71 54 53.

LEINTZ GATZAGA

► **Gatz museo.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi. Argibideak: 943 71 47 46.

AZPEITIA

► **Trenbidearen euskal museo.** Julian Elorza, 8.

Zinema

ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

Desde el infierno
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

Black Hawk derribado
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.
Eguena: 17:00, 19:30, 22:30.

OÑATI

■ SANTA ANA

Black Hawk derribado
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 22:30.

EIBAR

■ UNZAGA

Monstruos S.A.
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:00, 22:15.
Martitzena: 19:00, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Daño colateral
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Desde el infierno
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 22:30.

John Q.

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

La máquina del tiempo

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

No es otra estúpida película americana

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Una mente maravillosa

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

En la ciudad sin límites

Egunero: 20:00.

La última profecía

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Gosford Park

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 23:00, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Guerreros
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Monstruos S.A.

Egubakoitza: 17:15.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

Atando cabos

Egunero: 20:15, 22:45.

El señor de los anillos

Egunero: 17:00.

Peter Pan

Egubakoitza: 17:15, 20:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

Bones

Egunero: 22:30.

La máquina del tiempo

Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Una mente maravillosa

Egunero: 17:00, 19:45, 22:45.

Gosford park

Egunero: 17:00, 19:45, 22:45.

Amelie

Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:45.

El florido pensil

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Hable con ella

Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Yo soy Sam

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:30, 00:00.
Domeka: 17:30, 20:30.

El hijo de la novia

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Hable con ella

Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

Mulholland drive

Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 00:00.
Domeka: 20:30.

Black Hawk derribado

Egunero: 17:00.

En la habitación

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:30, 22:30.

Guerreros

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Moulin rouge

Egubakoitza: 00:00.
Zapatua: 20:30, 00:00.
Domeka: 20:30.

El señor de los anillos

Egunero: 17:00.

■ STER ZINEMAK

La máquina del tiempo

Egubakoitza: 18:10, 20:40, 22:45, 00:50.
Zapatua: 12:10, 16:05, 18:10, 20:40, 22:45, 00:50.
Domeka: 12:10, 16:05, 18:10, 20:40, 22:45.

John Q.

Egubakoitza: 18:20, 20:50, 23:15, 01:40.
Zapatua: 12:00, 15:55, 18:20, 20:50, 23:15, 01:40.
Domeka: 12:00, 15:55, 18:20, 20:50, 23:15.

Desde el infierno

Egubakoitza: 17:40, 20:10, 22:40, 01:10.
Zapatua: 12:00, 17:40, 20:10, 22:40, 01:10.
Domeka: 17:40, 20:10, 22:40.

No es otra estúpida película americana

Egubakoitza: 17:40, 20:10, 22:50, 01:00.
Zapatua: 12:30, 16:20, 18:30, 20:50, 22:50, 01:00.
Domeka: 12:30, 16:20, 18:30, 20:50, 22:50.

Una mente maravillosa

Egubakoitza: 17:45, 20:20, 22:55, 01:30.
Zapatua: 12:20, 17:45, 20:20, 22:55, 01:30.
Domeka: 12:20, 17:45, 20:20, 22:55.

Peter Pan

Egubakoitza: 19:10, 21:10, 22:55.
Zapatua eta domeka: 12:40, 17:10, 19:10, 21:10, 22:55.

Monstruos S.A.

Egubakoitza: 19:00, 21:00, 23:00.
Zapatua eta domeka: 12:25, 17:00, 19:00, 21:00, 23:00.

Hable con ella

Egubakoitza: 18:10, 20:30, 23:00, 01:20.
Zapatua: 12:10, 15:50, 18:10, 20:30, 23:00, 01:20.
Domeka: 12:10, 15:50, 18:10, 20:30, 23:00.

La última profecía

Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 20:20, 22:55, 01:30.
Domeka: 17:40, 20:20, 22:55.

Flubber

Zapatua eta domeka: 12:30, 15:50.

■ YELMO CINEPLEX

No es otra estúpida película americana

Egubakoitza: 16:05, 18:05, 19:55, 21:55, 00:05.
Zapatua: 12:30, 16:05, 18:05, 19:55, 21:55, 00:05.
Domeka: 12:30, 16:05, 18:05, 19:55, 21:55.

La máquina del tiempo

Egubakoitza: 15:55, 18:10, 20:25, 22:20, 00:30.
Zapatua: 11:50, 15:55, 18:10, 20:25, 22:20, 00:30.
Domeka: 11:50, 15:55, 18:10, 20:25, 22:20.

Guerreros

Egubakoitza: 15:55, 17:45, 19:45, 21:45, 00:10.
Zapatua: 12:15, 15:55, 17:45, 19:45, 21:45, 00:10.
Domeka: 12:15, 15:55, 17:45, 19:45, 21:45.

Atando cabos

Egubakoitza: 15:45, 17:55, 20:15, 22:25, 00:35.
Zapatua: 12:10, 15:45, 17:55, 20:15, 22:25, 00:35.
Domeka: 12:10, 15:45, 17:55, 20:15, 22:25.

John Q.

Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:10, 22:35, 00:50.
Zapatua: 11:35, 15:30, 17:50, 20:10, 22:35, 00:50.
Domeka: 11:35, 15:30, 17:50, 20:10, 22:35.

El florido pensil

Egubakoitza: 15:35, 18:00, 20:15, 22:40, 00:45.
Zapatua: 11:40, 15:35, 18:00, 20:15, 22:40, 00:45.
Domeka: 11:40, 15:35, 18:00, 20:15, 22:40.

Monstruos S.A.

Egubakoitza: 15:25, 17:30, 19:40, 21:50.
Zapatua: 12:15, 15:25, 17:30, 19:40, 21:50.
Domeka: 15:25, 17:30, 19:40.

El señor de los anillos

Egubakoitza eta zapatua: 23:55.
Domeka: 21:40.

Amelie

Egubakoitza: 15:25, 17:40, 19:55.
Zapatua eta domeka: 12:05, 15:25, 17:40, 19:55.

Desde el infierno

Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 12:10, 15:25, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.

La última profecía

Egubakoitza: 15:20, 17:35, 20:00, 22:30, 00:50.
Zapatua: 11:55, 15:20, 17:35, 20:00, 22:30, 00:50.
Domeka: 11:55, 15:20, 17:35, 20:00, 22:30.

En la habitación

Egubakoitza: 15:35, 18:15, 21:15, 00:15.
Zapatua: 11:30, 15:35, 18:15, 21:15, 00:15.
Domeka: 11:30, 15:35, 18:15, 21:15.

Ocean's eleven

Egubakoitza: 16:00, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 18:30.

Mulholland drive

Egubakoitza eta zapatua: 21:20, 00:20.
Domeka: 21:20.

Peter Pan

Egubakoitza: 15:50, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Zapatua: 12:00, 15:50, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:00, 15:50, 18:00, 20:00, 22:00.

Hable con ella

Egubakoitza: 15:40, 17:55, 20:20, 22:45, 00:55.
Zapatua: 12:30, 15:40, 17:55, 20:20, 22:45, 00:55.
Domeka: 12:30, 15:40, 17:55, 20:20, 22:45.

Moulin rouge

Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:45.
Domeka: 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna.

Monstruos S.A.: ●●● | Moulin Rouge: ●●●● | Amelie: ●●●● | Ocean's eleven: ●●● | El Señor de los Anillos: ●●● | Una mente maravillosa: ●●● |

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

HABLE CON ELLA

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Pedro Almodóvar.

AKTOREAK: Javier Cámara, Dario Grandinetti, Leonor Watling.

Pedro Almodóvarren filmografia konparatuz gero, garbi ikus daitezke lehenengo eta azkeneko filmen arteko diferentziak. Lehenengo filmak ia amateurak ziren, oso diru gutxiarekin eginak, baina originaltasunez beteak. Bere istorioetan pertsonaia ugari nahastu izan ditu beti eta burura etorritzen zaizkion ideiei eta asmakizun guztiak sartu izan ditu. Horrexegatik, Almo-

dóvarren zinea oso bitxia, originala eta koloretsua izan da, baina filmetan agertzen ziren istorioen nahasketak, askotan, ez ziren ondo osatzen istorio nagusian, eta horrela, film gehienak nahiko irregularrak izan dira. Urteak pasatu ahal, zuzendaria helduago egin da eta bere ideia jariora zerbait lasaituz joan da. Istoriok, dramaturgiaren aldetik, itxiagoak eta sendoagoak egin dira.

Horren adibide *Hable con ella* dugu. Film eder horrek, batez ere, amodio istorio bat (Benignok Aliciarekiko sentitzen duen amodioa) eta adiskidetasun istorio

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Eskoriatza. Etxebizitza garajearekin salgai. 92 m². Hiru gela, bi komun-jantzita, garaje bikoitza, ganbara... 605 77 35 14.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. Bi logela eta sukaldia jantzita. 696 73 01 76.

Arrasate. San Andresko Bañez doktorea kalean etxebizitza salgai. 943 79 51 88.

Aretxabaleta. Belorrietan etxebizitza eta garajea salgai. 655 71 90 86 edo 943 79 98 99.

Arrasate. Meatzerrekan txaleta salgai. 943 79 70 25.

Arrasate. Erdiko Kalen etxebizitza salgai. Merke. 626 71 98 16. 21.00etatik aurrera. Iker.

Arrasate. 100 m²-ko etxebizitza salgai. Duplexa egiteko aukera. Ganbara eta bi autorenako garajea. 652 70 97 79. Gauzez deitu.

Arrasate. Ferrerías kalean etxebizitza salgai. Hiru gela, ganbara, berogailua... Berrituta. 656 79 24 35.

Bergara. Etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 943 76 52 08.

Arrasate. Santa Marínan 70 m²-ko etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. 943 79 20 98.

Arrasate. Erguinen etxebizitza salgai. Berrituta. 141.000 euro inguru (23,5 milioi pezeta). 943 79 96 08.

Arrasate. Maalako Errabalean etxebizitza salgai. 73 m². 652 76 25 21.

Bergara. Martoko kalean etxebizitza salgai. Guztiz berrituta eta erdi jantzita. 607 34 20 86. Juan Mari.

Bergara. Etxebizitza salgai. 90 m². Jantzita. Hiru logela, sukaldia, egongela, komuna, garaje indibiduala. 943 79 76

03 edo 652 77 70 71.

Bergara. Etxebizitza salgai Hiru logela, komuna, sukaldia, egongela, igogailua eta kalefakzioa. Garajea eta ganbara. Eguzki begia. 656 70 36 23.

Bergara. Martokon etxebizitza salgai 943 76 07 71.

Leintz Gatzaga. Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komun bi, ganbara... 627 34 84 64.

Arrasate. Agerre kalean etxebizitza salgai. Hiru logela eta egongela. 696 54 21 72.

Arrasate. Santa Marínan 55 m²-ko etxebizitza salgai. Bi logela, erdi berrituta eta jantzita. 117.200 €. 943 77 12 75 edo 696 70 94 00.

Eskoriatza. Etxebizitza berria salgai. Bi logela, sukaldia, bainugela eta egongela. 656 76 52 20.

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm. Levante hondartzako lehenengo lerroan dagoen apartamentu bat ematen da errentan (Bilbao kalean). 946 80 09 53. Marisol.

Benidorm. Hondartzako lehenengo lerroan dagoen apartamentu bat ematen da errentan (Bilbao kalean). 946 80 09 53. Marisol.

Arrasate. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Jantzita. Igogailua du. 943 79 60 88.

Somo (Kantabria). Etxebizitza ematen da errentan hondartzatik 50 metrora. Bi logela, trastelekua, zortzi ohe. Aste Santua, asteburuak, oporrak... 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

Aretxabaleta. Bedarreta auzoan etxebizitza ematen da errentan. Jantzita dago. 943 79 21 86 edo 626 60 11 07.

104. ERRENTAN HARTU

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

Arrasate. Hiru neska ikasle etxebizitza hartuko luke errentan. 652 75 68 05.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 943 77 17 17.

Arrasate. San Andres auzoan errentan hartzeko etxebizitza bila ari gara. 615 73 74 53.

105. ETXEA OSATU

Eskoriatza. Logela ematen da errentan. Sukaldia erabiltzeko aukera. 943 71 55 01.

Etxebizitza osatzeko neska bat behar da. 637 95 19 91.

Arrasate. Apirilatik aurrera etxe bat osatzeko pertsona bat behar da. 659 01 05 84.

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Jantzita. 616 33 05 46.

Arrasate. Neska bat behar da pisua osatzeko Zigorrolan. Garbiñe (637 91 41 40) edo Iratxe (616 78 46 70).

Bergara. Logelak ematen dira errentan. Sukaldia erabiltzeko aukera. 699 18 75 68.

Aretxabaleta eta Eskoriatza inguruan logela bat hartuko nuke errentan. 660 04 13 54. Deitu 18:00etatik aurrera.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 655 71 19 97.

Aretxabaleta. Gela bat ematen da errentan. Sukaldia erabiltzeko aukera. 627 64 27 13.

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 943 79 05 26.

106. DENETARIK

Angiozar. Lursail bi salgai 22 eta 28 urteko intxaurrondoekin. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.

Aretxabaleta. Lursaila hartuko nuke errentan. 699 82 88 24.

2/ GARAJEAK

201. SALGAI

Arrasate. Uriburu kalean, komunitateko lokal itxi baten bi autorenako garajea salgai. 943 79 67 59.

Arrasate. Txindoki dorrean (San Andres) garajea salgai. 699 16 11 34. Deitu 21:00etatik aurrera. Joxe Mari.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Erdialdean garajea hartuko nuke errentan. 639 03 43 58.

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan Santamariña edo Moiuva kale inguruan. 943 71 60 66.

Bergara. Antzuola edo Oñati inguruan garajea hartuko nuke errentan. Derrigorrez hiru metroko altuera izan behar du. 696 78 05 26.

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan. 677 64 82 30.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Santa Marínan garajea ematen da errentan. 943 76 47 67.

3/ LOKALAK

PABILIOIA EROSI

Antzuolan edo Bergaran 100-150 m²ko PABILIOI INDUSTRIALA EROSIKO NUKE. 616 27 79 99

ERRENTAN EMAN

Bergaran lokal komertziala ematen da errentan. 70 m² 943 76 14 66

BERGARA

Martxan dagoen taberna bat ematen da errentan 943 76 11 86

301. EROSI

Pabilioia. Oñati edo inguruan lokala erosi nuke, errepidearen ondoan. 610 38 12 44.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Espolioan lokala ematen da errentan. 943 76 16 89.

Bergara. Erdialdean arrandegitarako jantzita dagoen lokala ematen da errentan edo saldu egiten da. 943 76 40 73.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egin eta zaharrak zaintzeko. 943 77 04 60. Margari.

Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko. 619 47 63 54.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 79 07 73.

Neska gaztea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620 51 34 25.

803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

801. SALDU
802. EROSI

BERGARA

Jatetxe baten SUKALDARIA behar da. 943 76 50 99

ARRASATE

Neska bat behar da Arrasateko dastaleku baten lan egiteko. 943 79 80 44

OÑATI

TABERNA BATEN EGUNERO LAN EGITEKO PERTSONA BAT BEHAR DA. 943 78 06 59 (Goizez deitu)

Bergara. Neska batek astean behin lan egingo luke 09:00etatik 12:00etara. 943 76 36 68.

Bergara. Neska gertu atariak garbitzeko eta etxeko lanak egiteko. 943 76 38 73.

Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu: mekaniko, elektirikari, lorazain... 677 30 20 71.

402. ESKAERAK

Emakumea behar da goizez bi orduz etxeko lanak egiteko. Komenigarria da autoa izatea. 943 76 27 04. Deitu 20:00etatik aurrera.

Arrasate. Neska bat behar da asteburu arratsaldetan lan egiteko. 630 32 38 00.

Bergara. Gauetan garbiketarako egiteko pertsona behar da. 943 76 50 99.

5/ IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK

Ingeles eskolak emango nituzke. Maila guztiak. 943 76 31 72. Ainhoa.

Oñati. Esperientziadun irakaslea OHoko eskola partikularrak emateko gertu. 843 78 13 44.

Bergara. Lehen Hezkuntza-

ko eskola partikularrak emango nituzke. 943 76 15 19 edo 696 54 88 76. Jone.

Arrasate. Zuzenbide lizentziaduna Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak emateko gertu. Euskaraz edo gaztelaniaz. 943 79 83 46.

Bergara. Enpresaritzako hiru ikasle estatistika eta algebrak linealeko eskolak hartuko lituzkete. 943 76 39 61.

502. ESKAERAK

Bergara. Batxilergoko bigarren mailako Matematikako eta Kimikako eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 76 07 50.

Arrasate. Kudeaketa Finantzarioko eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 79 70 72. Arantza.

Bergara. Turbo Pascal-eko eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 76 39 96.

Arrasate. 2. DBhko eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 79 04 89 (Idurre) edo 943 79 61 44 (Dani).

6/ MOTORRA

601. SALDU

Trialeko Scorpa 280 cm³ motoa salgai. 1996koa. 943 79 89 82 edo 653 71 53 51.

Seat Ibiza 1.9 D autoa salgai. 65.000 Km. 1998koa. 626 62 97 44.

Peugeot 205 GT salgai. 607 30 74 72.

Autokarabana salgai. Ondo dago, eta guztiz jantzita. 943 79 52 85.

KTM 200 Endura motoa salgai. 1999koa. 609 14 25 25. Fernando.

BMW 2.23i autoa salgai. 1985koa. Ondo dago. 615 74 10 67 edo 619 50 57 71.

Golf GTi 2.0 autoa salgai. SS-AY. Ondo dago. 609 15 87 25.

Suzuki Burman 400 motoa salgai. 5.000 Km. 4.230 €. 943 79 14 86.

Yamaha SR 250 Special motoa salgai. 699 81 19 10 edo 630 07 07 27.

Aretxabaleta. 50cm³-ko Yamaha Aerox motoa salgai. 679 16 41 65.

Mercedes 280 Elegance C serieko autoa salgai. Fulle quiped. SS-AX. 100.000 Km. 646 92 24 23.

Nissan Terrano 2.7TDi luzea salgai. Aire egokitua, aleaziozko haguak. 90.000 Km. 609 48 84 85. Igotz.

Corsa GSI autoa salgai. 130.000 Km. 999 €. 619 79 15 74.

Golf GTI 16v autoa salgai. 669 27 09 88.

Renault 19 Diesela salgai. SS-AW. Ondo dago. 943 71 48 38.

Peugeot 106 diesel autoa salgai. Egoera paregabea. 653 01 96 33.

Aprilia R5-50 motoa salgai. 649 19 62 48.

Yamaha XJ 600 motoa salgai. Errebisioa pasatu berri. 600 €. 943 79 78 36.

Audi 90 2.2e autoa salgai. Ondo dago. Prezio egokia. 943 71 62 44.

Land Rover Discovery sal-

gai. SS-AW. Ondo zainduta. Gehigarriak. 652 77 40 03.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Solarium profesionala aire eta aurpegiarako barrekin salgai. 652 75 55 13.

Autoendako karroa salgai. 652 75 55 13.

Pertsona zaharrak etxe barruan ibiltzeko taka-taka eta eustekoa salgai. 652 75 55 13.

Hidromasajea salgai. 943 76 03 76.

Solariuma salgai. Ondo dago. 943 76 23 12.

Kolorezko Monitorrea salgai. 14" eta 1024 x 768 bereizmena. Urte gutxi, oso ondo dago. 55 euro, negoziagarriak. 943 79 09 52 edo 653 74 65 65

Philips markako telebista salgai. 25". 943 79 60 88.

Ume bikiendako kotxe-aulkia salgai. Gehigarri guztiak ditu. 943 79 82 78.

Sukaldeko altzariak, etxetresna elektrikoak eta jangelako mahaiak salgai. Ondo daude. 943 79 24 59 edo 943 79 13 26.

802. EROSI

Umea paseatzeko kotxe-aulkia erosi nuke. 943 79 37 68.

Pianoa. Bigarren eskuko pianoa erosi nuke. 943 79 92 02. Arratsaldeetan deitu.

Akordeoi kromatikoa erosi nuke. Convertor baxuak, 46 nota eta bi edo hiru ahotseko. Ahal bada, Pigiñi markakoa. 943 71 50 32.

806. GALDU

BERGARA

San Lorentzotik Mekolaldera bidean (goiko trenbidetik) GILTZAK GALDU NITUEN. Aurkitu badituzu eraman azokako Arantxaren postura.

Arrasate. Laubide inguruan (Amaia zinemarako bidean) erretratu makina bat galdu nuen. 943 71 44 40.

Eskoriatza: Otsailaren 25a eta 26a bitartean, Goretexeko Ternua markako txamarrak bat haizeak eraman zuen balkoitik. Inork topatu badu: Aranburuzala 56, 7.esk. (Joxerra Zubizarreta).

807. AURKITU

Bergara. Monopatina aurkitu dugu. 943 76 55 10.

10/ RELAX

**CLUB
IYOLA**

**Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29**

Begoña

AIPAGARRI

Maider Azkarate

BERGARA

Domekan jokatu zen Emakumezkoen Ile Apaintzaileen X. Gipuzkoako Txapelketa. Profesionalen sailean Amparo ile apaindegiko Maider Azkarate geratu zen bigarren. Ile Apaintzaile abangoardistaren saria ere eskuratu zuen, iaz bezala. Gainera, ikasleen mailan, bigarren geratu zen iaz.



Roberto Olabe

GASTEIZ


Realeko entrenatzaile berria Aretxabaletako UDA taldean jokaturakoa da. 1986-1987 denboraldian jokatu zuen Aretxabaletan. Aurrera de Vitoria taldetik etorri zen UDARA, eta atezain postuan jokatu zuen. Gainera, Roberto bera gasteiztarra den arren, Aretxabaletakoa zuen aitona.



Juanjo Orobengoa

ARETXABALETA

Oraingo asteburuan jokatu da Akordeoi Orkestren Europako II. Txapelketa. Aretxabaletako Akordeoi orkestrak ere parte hartuko du txapelketa horretan, Juanjo Orobengoaren zuzendaritzapean. Aretxabaletakoa izango da Euskal Herriko eta Estatuko parte hartzaile bakarra.




JAIOTAKOAK


- Josu López Herrador.** Bergaran, martxoaren 6an.
- Olaia Arriola Pampin.** Bergaran, martxoaren 10ean.
- Irati Urrutia Domaica.** Aretxabaletan, martxoaren 10ean.
- Julen Arriola Gallastegi.** Bergaran, martxoaren 12an.
- Sara Ugarteburu Gabilondo.** Elgetan, martxoaren 15ean.
- Ioana Gorosarri Trojaola.** Arrasaten, martxoaren 15ean.
- Danel Bastardo Redondo.** Arrasaten, martxoaren 16an.
- Unai Arias Axpe.** Aramaion, martxoaren 18an.

HILDAKOAK

- Agustín Arin Kortabarria.** Antzuolan, martxoaren 8an. 88 urte.
- Rosario Maiztegi Arabaolaza.** Oñatin, martxoaren 13an. 70 urte.
- María Begoña Ibarrondo Armendariz.** Oñatin, 15ean. 57 urte.
- Iñaki Galfaroso Madariaga.** Aretxabaletan, 15ean. 29 urte.
- Juan Imaz Bastarrika.** Bergaran, martxoaren 16an. 79 urte.
- María Jesús Garaialde Goikoetxea.** Oñatin, 17an. 67 urte.
- Julio Markaide Goenaga.** Arrasaten, martxoaren 17an. 74 urte.
- María Arenaza Lasagabaster.** Aretxabaletan, 17an. 93 urte.
- Tina Posadas Hilario.** Aretxabaletan, martxoaren 17an. 71 urte.
- Teresa Arriolabengoa Mendizabal.** Aramaion, 20an. 88 urte.
- Timoteo Jauregi Loiti.** Aramaion, martxoaren 20an. 78 urte.
- Luis Marcos Montoya.** Eskoriatzan, martxoaren 20an. 48 urte.



Priska González Sánchez aretxabaletarra eta **Amanda** lehengusina. Priska martxoaren 15ean jaio zen eta 3,300 kilo pisatu zuen. **Enma** eta **César** dira gurasoak.



Unai Arias Axpe eta **Juanjo aita**, aramaioarrak biak. Martxoaren 18an jaio zen Unai eta 3,400 kilo pisatu zuen. **Mireia** da ama, aretxabaletarra.



Danel Bastardo Redondo eta **Fernando** eta **Sonia** gurasoekin, mondragoetarrak hirurak. Danel martxoaren 16an jaio zen eta 3,190 kilo pisatu zuen.



Olaia eta **Julen Arriola** lehengusu bergararrak. Olaia martxoaren 10ean jaio zen eta Julen 12an. Olaiaren gurasoak **Patxi** eta **Pili** dira; **Juan Luis** eta **Mireia**, berriz, Julenenak.



Txelo Paredes eta **Miguel Angel Fernández** mondragoetarrek zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte datorren astean. 1977ko martxoaren 26an ezkondu ziren Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Orain, 25 urte beranduago, bidaia eder batekin ospatuko dute urteurrena: Mallorcara joango dira. Ondo pasa ezazueta, bada, eta zorionak, bikote!

ESKER ONA

Maria Sologaistoa Biain

Bergaran hil zen 2002ko martxoaren 9an, 76 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Lagun, familiarteko edo hurbilekoren batzuk ezkontzekotan badira, edo ezkondu zeneko zilarrezko edo urrezko ezteiak ospatzekotan badira, edo ospatu badituzte, hemen dute tokia. Ekarrri ezazue euren argazkia GOIENKARIAko edo herri aldizkarietako egoitzetara, eta atal honetan ipiniko dugu.

ESKER ONA

Jabier Gantxegi Iriondo

Bergaran hil zen 2002ko martxoaren 13an, 67 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jabier Gantxegi Iriondo

Bergaran hil zen 2002ko martxoaren 13an, 67 urte zituela.



Beti gogoan izango zaitugu



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

URTEURRENA


Jose Maria Leturia Inza

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 23an, 19:00ean, **Oñatiko** San Migel parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuzenetik eskerrik asko sendikoen izenean.

ASTEBUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 23

Asteburu honetan, aurrekoetan baino eguraldi hobea izango dugu. Zapatuan baliteke laino gutxi batzuk izatea, baina ostarteak izango ditugu nagusi egun osoan. Goizeko lehen orduetan behelainoa izango dugu. Tenperatura ez da aldatuko. Hai-zea, berriz, ekialdetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera:

Lainoak eta ostarteak.

Errioxa: Lainoak eta ostarteak.

Pirinioak: Lainoak eta ostarteak.



DOMEKA, 24

Domekan ere baliteke laino batzuk izatea, eta baita behelainoa ere goizeko lehen orduetan, baina eguraldi ona eta zeru garbiak izango ditugu nagusi. Hala ere, tenperatura jaitsi egingo da apurtxo bat. Hai-zea ekialdetik eta ipar-ekialdetik ibiliko da, arin.

Nafarroako Erribera:

Egun lainotsua.

Errioxa: Lainoak eta ostarteak.

Pirinioak: Egun lainotsua.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

13,8° C

ILARGIAREN ALDIAK: MARTXOA



EGUZKIA: MARTXOAREN 24a



URKULUKO URTEGIA

Azkeneko astean ere gora egin du Urkuluko ur mailak. Izan ere, joan zen asteburuko zaparradak ez ziren nola nahikoak izan. Joan zen astean %72,75 zen ur maila.

% 73,1

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

MEZAK

Astegunetan

08:30, 12:00.

Zapatuetan

08:30, 12:00, 19:30.

Domeka eta jaiegunetan

09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112))
SOS DEIAK**

Bergara	943 76 24 40
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11
Hies Ekimena	943 79 26 99

Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Aberre hiltzaria (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elkarteak	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Kapirixo	943 71 63 23
Zerga Bulegoa	943 76 58 63

Euskara Taldeak

Debagune	943 77 12 28
Arrasate / AED	943 77 12 28
Aretxabal. / Loramendi	943 77 09 70
Bergara / Jardun	943 76 08 19
Eskoriatza / Axtroki	943 71 54 34
Oñati / Laixan	943 71 63 11

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate	943 77 11 43
Arrasate	945 76 44 42
Aramaio	945 44 50 33
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegiak

GARRIAOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10

Taxiak

Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 64 80
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

ZENBAKISARITUAK

BONOLOTOA				LOTERIA PRIMITIBOA		
EGUAZTENA 20 04 • 05 • 08 11 • 39 • 49 OSAGARRIA: 33 ITZULKETA: 2	MARTITZENA 19 05 • 28 • 31 36 • 48 • 49 OSAGARRIA: 04 ITZULKETA: 5	ASTELEHENA 18 08 • 10 • 22 25 • 32 • 45 OSAGARRIA: 02 ITZULKETA: 5	EGUBAKOITZA 15 04 • 06 • 07 12 • 22 • 42 OSAGARRIA: 09 ITZULKETA: 4	Sarritzarra DOMEKA 17 06 • 15 • 28 30 • 42 • 49 OSAGARRIA: 24 ITZULKETA: 8	ZAPATUA 16 11 • 28 • 29 36 • 37 • 44 OSAGARRIA: 39 ITZULKETA: 1	EGUENA 14 06 • 18 • 24 28 • 35 • 41 OSAGARRIA: 30 ITZULKETA: 0

ONCE

EGUAZTENA 20 22.921 (016-020 serieak)	MARTITZENA 19 01.203 (051-055 serieak)	ASTELEHENA 18 99.175 (006-010 serieak)	DOMEKA 17 18.971 (020 seriea)	Kupoitzarra EGUBAKOITZA 15 50.822 (016 seriea)	EGUENA 14 67.238 (001-005 serieak)
--	---	---	----------------------------------	--	---------------------------------------

Erakunde *haren laguntzaz*

Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Aretxabaletako Udala

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Elgetako Udala

Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala
Oñatiko Udala

AUTOBUSORDUTEGIA/PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igandekak

DONOSTIA-GASTEIZ

BERGARA			ARRASATE			ESKOLA P.			ARETXABALETA			ESKORIATZA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:45	07:15	09:15	07:00	07:30	09:30	07:45	—	—	07:05	07:35	09:35	07:10	07:40	09:40
07:15	08:15	11:15	07:30	08:30	11:30	13:20	—	—	07:35	08:35	11:35	08:40	08:40	11:40
08:15	09:15	14:15	08:30	09:30	15:30	—	—	—	08:35	09:35	15:35	09:40	09:40	14:40
09:15	11:15	15:15	09:30	10:30*	14:30	—	—	—	09:35	10:35	14:35	10:40	10:40	15:40
11:15	13:00	17:15	10:30	11:30	16:30	—	—	—	10:35	11:35	16:35	11:40	11:40	16:40
13:00	14:15	18:30	11:30	12:30*	17:30	—	—	—	11:35	12:35	17:35	12:40	12:40	17:40
14:15	15:15	19:15	12:30*	13:15	18:30	—	—	—	12:35*	13:35	18:35	13:40	13:40	18:40
14:25	18:30	21:15	13:15	13:30*	18:45	—	—	—	13:20	14:35	18:50	14:50	14:40	18:55
15:15	19:15	21:45	13:30*	15:30	19:30	—	—	—	13:35*	15:35	19:35	15:40	15:40	19:40
16:00	20:30	—	14:30	14:30	21:30	—	—	—	14:45	16:35	21:35	16:40	16:40	21:40
18:30	21:15*	—	14:40	16:30	22:00	—	—	—	15:35	17:30	—	17:40	17:40	—
19:15	21:45*	—	15:30	17:30*	—	—	—	—	16:35	18:35	—	18:40	18:40	—
20:30	—	—	16:15	18:30	—	—	—	—	17:35*	19:35	—	18:55	18:55	—
21:15*	—	—	16:30	18:45	—	—	—	—	18:35	21:35	—	19:40	19:40	—
21:45	—	—	17:30*	19:30	—	—	—	—	18:50	—	—	21:40	21:40	—
—	—	—	18:30	20:45	—	—	—	—	19:35	—	—	22:10*	—	—
—	—	—	18:45	21:30	—	—	—	—	21:35	—	—	—	—	—
—	—	—	20:45	22:00	—	—	—	—	22:05*	—	—	—	—	—
—	—	—	21:30	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
—	—	—	22:00	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—

(*) Landantik.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

GASTEIZ			ESKORIATZA			ARETXABALETA			ARRASATE			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:30*	06:30**	08:30**	06:20	07:05**	09:05**	06:25	07:10**	09:10**	06:30	07:20*	09:20**	06:45	07:35*	09:35**
07:30	07:30	09:00	07:05**	08:05	09:35	07:10**	08:10	09:40	07:20**	07:20*	09:50	07:35**	07:35*	10:05
08:30*	08:30**	10:30**	08:05	09:05**	11:05**	08:10	09:10**	11:10**	08:20	08:20	11:20**	08:35	08:35	11:35**
09:30**	09:30**	12:30**	09:05**	10:05**	13:05**	09:10**	10:10**	13:10**	09:20**	09:20**	13:20**	09:35**	09:35**	13:35**
10:30**	10:30**	15:30**	10:05**	11:05**	16:05**	10:10**	11:10**	16:10**	10:20**	10:20**	16:20**	10:35	13:35	17:35*
11:30*	11:30*	16:30**	11:05**	12:05**	17:05**	11:10**	12:10**	17:10**	11:20**	11:20**	17:20**	13:35	13:35	19:35*
12:30*	12:30*	17:30**	12:05**	13:05**	18:05**	12:10**	13:10**	18:10**	11:20**	12:20**	18:20**	13:35*	14:35	20:35**
12:30*	12:30*	18:30*	13:05**	13:05**	19:05**	13:10**	13:10**	19:10**	12:20**	13:20**	19:20**	14:35	17:35	21:35**
13:30*	13:30*	19:30*	14:05**	14:05**	20:05**	14:10**	14:10**	20:10**	13:20**	13:20**	20:20**	15:35	19:35	—
14:30	15:30**	20:30**	15:05**	15:05**	21:05**	15:10	15:10**	21:10**	13:20**	14:20**	21:20**	17:35*	20:35*	—
16:30*	16:30*	—	16:05**	16:05**	—	16:10**	16:10**	—	14:20**	15:20**	—	18:45	21:35**	—
17:30**	17:30**	—	17:05**	17:05**	—	17:10**	17:10**	—	15:20	16:20**	—	19:35	—	—
18:30	19:30**	—	18:05**	18:05**	—	18:10**	18:10**	—	16:20**	17:20**	—	20:35*	—	—
19:30*	20:30**	—	19:05	19:05	—	19:10	19:10	—	17:20**	18:20**	—	21:35**	—	—
20:30**	—	—	20:05	20:05	—	20:10*	20:10*	—	18:20**	19:20**	—	—	—	—
—	—	—	21:05**	21:05**	—	21:10**	21:10**	—	18:30	20:20**	—	—	—	—
—	—	—	—	—	—	—	—	—	20:20*	—	—	—	—	—
—	—	—	—	—	—	—	—	—	21:20*	—	—	—	—	—

(*) Landantik.

(*) Eibarerraino

(*) Bergararaino

DONOSTIA-BILBO

DONOSTIA			ANTZUOLA			BERGARA			ELGETA			BERGARA-OÑATI	
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	A
07:00	07:00	08:30	08:30	09:18	10:00	06:35*	09:10	10:10	08:50	09:20	10:20	07:20	07:40
16:30	16:30	19:00	09:40	12:05	17:55	08:40	12:15	18:10	14:00	18:20	18:20	09:35	09:55
—	—	—	12:05	19:35	—	09:50	18:10	18:45	18:20	20:50	—	13:35	13:55
—	—	—	16:40	20:30	—	12:15	19:45	20:40	—	—	—	16:35	16:55
—	—	—	17:15	22:05	—	13:45	20:50	22:15	—	—	—	18:35	18:55
—	—	—	18:00	—	—	16:50	—	—	—	—	—	19:35	19:55
—	—	—	19:35	—	—	17:25	—	—	—	—	—	20:45	21:05
—	—	—	20:40	—	—	18:10	—	—	—	—	—	Z	Z
—	—	—	—	—	—	19:45	—	—	—	—	—	20:45	21:05
—	—	—	—										

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Nafarroako herria	Lapurdiko herria	Deitura
	Adi ezak!	Hegazti mota	
Jaurtiketa			
Pl., barazki ezaquna			
Iñurrien bizitoki	Arin		
Izena	Pl., intsektu mota		
			Tona
			Röntgen
Ezeza		Bizkaian, iratzea	
Ura bor-bor jarri		Nafarroako herria	
			Boroa
			Kasik
Nori atzizkia		Denbora, beta	
Benetan		Poliki	
			Ez eme
			Gurdi mota
Zoritxar			Kontso-nantea
Lan			Partitiboaren marka
		Gaixo	
		Lemaren erdian	
Kontso-nantea	Euskal atzizkia		
Kili-kiliak	Bokala		
			●

UMOREGIROAN/ Juan Martin Elexpuruk jasoak

Hauetako asko Juan San Martinen Zirikadak eta Eztenkadak liburuetatik jasoak dira.

NOTA TXARRAK

Nota txarrak ekarri zittuan muti-kuak eskolatik, eta aittak hasarre: - Eta zer egingo dok hik eskribitzen ezpadakik!? - Ba, igual jat, telefonua joko dot.

TABAKUA HIRE HONDAMENDIXA

Lagun bi juntu die kalia, eta? - Tabakua dok hire hondamendixa. Erreko ez bahu, honez-kero palazio bat erosi heikien diru horrekin. - Hik ez dok erretzen? - Ezta bape. - Goazen orduan hire palaziua ikustera.

TONTOARRO?

Haserretu die bi tabernan eta? - Hi tontoarro kerten kalami-dade bat haiz! - Ze uste dok ba, heu baka-riik, ala?

BOTAIK GAI?ERA

Behin, goizero bezela, Plazen-tziatik Eibarrera zijoian Turkua errekadistia, eta Maltzagan eibar-tar gazte batek auto-stop egin zotsan. - Turkua, Eibarrera eruangi dostazu? - Bai, botaik gaiñera! - Eta Turkuak geldittu barik aurrera jarraitu eban, gaztia aho bete hortzekin lagata.

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Oso aste aproposa kontratuak sinatzeko, negozioak egiteko eta akordioak egiteko; betiere, jendearekin kolaboratzeko asmoa baldin badauka-zu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Amodio kontuetan ez zabiltza batere fin azkenal-dian. Bikotekidearekin duzun harremanak ez zaitu asetzen, eta damutuko zaizun zerbait egin dezake-zu. Hausnar ezazu, zure egoeraren zergatia aurkit-zeko. Buruko min handien eraginez, ohean egon beharko zara hainbat egunez.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Proiektuek eta asmoek aurrera egingo dute eta bete egingo dira. Horrek segurtasun eta konfiantza handia emango dizu, eta oso ondo sentituko zara zure buruarekin. Oraingo astea zure sorkuntza agerian jartzeko aproposa izango da, plazerrezko jarduerak egiteko.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Mugimendu eta esfortzu handia zure proiektuak aurrera ateratzeko orduan, batez ere, lanean. Pazientzia eduki; izan ere, pazientziarik ez badauka-zu, huts egiteren bat edo beste egin dezakezu, eta damutuko zaizu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Oso aste atsegina eta alaia pasatuko duzu. Aisialdirako denbora luzea izango duzu, lagunekin disfrutatzen. Aprobetxa ezazu astea, eta lagun batzuekin zenituen arazoak konpon itzazu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Deprimitezko eta dena ilun ikusteko joera daukazu. Hori dela eta, ez zara buru-belarri sartuko zure proiektuetan; alderantziz, gelditu egoteko joerantz egingo duzu. Saia zaitetz positiboago izaten.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Oso une egokia edozein motatako jarduerak, proiektuak, eta abar egiteko; izan ere, hasten duzuna ondo iriteteko aukera guztiak dituzu. Hortaz, ekin lanari eta ez zaitetz alferra izan.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Kontraturen bat sinatzeko edo zerbait negoziatzeko asmoa baldin bazenuen, ahal baduzu alde bate-ra utzi, momentuz. Ez da une egokia horretarako. Bizitzaren balio batzuk aldatzea pentsatuko duzu; izan ere, balio batzuek ez dizute balio.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Espero zenituen aldaketak izango dituzu lanean, betiere, horiek lortzeko argi ibiltzen baldin bazara; izan ere, zure alferkeriak eta beste mundu baten egoteko joerak aldaketok izatea galarazi egin die-zazukete.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Arazoak familiartean. Haienganako dedikazio txikia aurpegiatuko dizute, baita oso hotza zarelara ere. Bestalde, zure jarrera lehiakorra dela eta, laneko-kin arazoak izango dituzu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Zure ingurukoekin diskutitu egingo duzu, gai batzuetan desadostasunak dituzue-eta. Eutsi zure jarrerari, eta ez utzi besteoi zure bizitza gidatzen; denboraren poderioz argi geratuko da zu zenbiltza-ila zuzen.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Ez fidatu besteek esaten dizutenarekin, eta egin kasu, konfiantza osoarekin, zure intuizioei, zuzen ibiliko zara-eta. Lanena aldaketak izango dituzu; hasiera baten, aldaketok ez dira zure gustukoak izango, baina epe luze oso ondo moldatuko zara.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zein da Deba ibaiaren tarterik kutsatuena?

Deba ibaia ei da Gipuzkoako errekarik kutsatuena, oraindik bertako hainbat herritan saneamendurako instalazioak egin gabe daudelako. Baina, kutsadura hori ez da erreka guztian zehar berdina; toki batzuetan arrainak ere badaude. Asmatuko ote zenuke zein den tarterik kutsatuena?


- Arrasate-San Prudentzio tartea.
- Bergara-Osintxu tartea.
- Aretxabaleta-Arrasate tartea.
- Itsasoratzean, Deban.

Erantzun zuzena: Arrasate-San Prudentzio tartea.

BILABILATZ



SOLUZIOAK



●	K	A	M	I	L	I	K
A	R	E	K	●	G	●	
I	R	E	●	E	K	E	N
R	●	L	A	M	A	T	●
R	A	R	●	Z	E	N	Z
A	I	A	I	A	T	●	●
B	●	N	I	K	A	R	I
A	R	A	●	A	K	U	●
T	●	O	I	Z	A	N	I
R	A	R	●	Z	A	●	●
O	R	I	T	●	●	●	
K	A	K	I	Z	A	●	
●	S	●	U	●	●		



Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com



LEIRE KORTABARRIA/
'ASTEBETE' SAIOA

"Kulturaren gaineko saio bat gustura egingo nuke"

GOIENKARIAn dihardu 24 urteko oñatiar honek. Arrasate Press-en eta *El Diario Vasco*-n ibilia da. Prentsa idatziaz gain, ordea, telebista eta irratia ere lantzen ditu: GOITBko Astebete saioa solaskidea da eta Arrasate Irratian zinemaren gaineko saio bat egiten du.

Telebista, irratia ala idatzizkoa?

Betidunik, idaztea izan da nire zaletasun handiena, hortaz, idatzizkoa da nire lehen aukera. Baina telebistan eta irratian ere gero eta poziago nabil.

Gustura GOITBko Astebete saioan?

Bai, oso gustura. Asko ikasten ari naiz, batez ere, kamera aurrean zuzeneko elkarrizketak egiteari dagokionez.

Telebistan lehen ere ibilia zara, ezta?

Bai, ATBko eta GOITBko *Hamaika Magazin* saioan, baina oso bestelako lanean: erreportajeak idazten nituen. Dena dela, behin edo behin ere aurkeztu izan dut, eta esperientzia polita izan zen, eta eskola ezin hobea.

Zelako telebista saioa egingo zenuke gustura?

Kulturaren gaineko saio bat, zinemaren edo literaturaren ingurukoa-edo. Uste dut elkarrizketak egiten ere ausartuko nintzatekeela.

Eta ikusteko, zelakoak gustatzen zaizkizu?

Gaurkotasuneko erreportajeen saioak, kultura saioak eta zinema saioak. Eta solasaldia baldin badute, hobeto.

Telebista aurrean ordu asko sartzen dituzu?

Ez. Uste dut gaur egungo programazioak, oro har, ez duela merezi, salbuespenak salbuespen. Edozelan ere, GOITB Oñatin hartuko balitz, ziur gehiago ikusi-ko nukeela.

'Berriak'

Astelehenean, 14:00etan

E-debagoiena

E-debagoiena hilaren 25ean aurkeztuko dute Gatzagako Gatz Museoa. Hantxe, proiektu hori aurrera eramane ahal izateko hitzarmena sinatuko dute. Helburua da Debagoiena lehenbailehen sartzera Informazioaren Gizartean. Hortaz, aitzakia paregabea Goiena Telebistak bere bitartekoak haraxe eramateko. Gorka Etxabe erredaktore eta aurkezleak Gatzagatik eskainiko dizue albistegia, 14:00etatik aurrera.

Mahaingurua

Astelehenean, 20:30ean

Informazio Gizarterantz

Debagoiena aitzindari izango da Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen egitasmoan. e-debagoiena proiektuan gauzatuko da hori, eta duda barik horrek izango du eragina gure ibarrean. Horixe, Maria Agirre kazetariak mahai gainean jarriko duen gaia datorren astelehenean. Mahaiaren bueltan jarriko ditu e-debagoiena proiektuko bultzatzaile nagusiak: Iban Arantzabal, Guillermo Irazoki, Jabier Retegi eta Mikel Irizar.

'Iparrorratza'

Martitzenean, 20:30ean

Hiru pauso, hiru norabide

Izenburu hori ezagun egingo zaio askori, eta arrotz beste askori. Izen bitxi horrekin bataiatu zuten duela urte batzuk hamaika lagun artean egindako bidaia bitxia. Hiru zeharbide osatu dute proiektua, hirurak Eskandinaviako penintsula luzexkan. Eskiz, piraguz eta bizikletaz. Honela zeharkatu zuten Eskandinavia, hiru taldetan banatuta. Bi protagonista gonbidatu ditu Julen Arangurenak: Ramon Olasagasti eta Aitor Elduaen.



Asteko programazioa/Martxoa 22-28

EGUBAKOITZA 22	ZAPATUA 23	DOMEKA 24	ASTELEHENA 25	MARTITZENA 26	EGUAZTENA 27	EGUENA 28
14:00 Berriak 14:30 Sarrera doan 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Soinuz blai 21:30 Berriak	14:00 Xeleberri Iparrorratza Mongolia bisitatzeko aukera emango dizuegu saio honetan. Sarrera doan Ekon taldearen inguruko erreportaje zabala eskainiko dizuegu; izan ere, disko berria izango du kalean laster. Soinuz blai	14:00 Xeleberri Iparrorratza Mongolia bisitatzeko aukera emango dizuegu saio honetan. Sarrera doan Ekon taldearen inguruko erreportaje zabala eskainiko dizuegu; izan ere, disko berria izango du kalean laster. Soinuz blai	14:00 Berriak berezia Gatzagatik 14:30 Iparrorratza 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Mahaingurua 21:30 Berriak 22:00 Goienasport	14:00 Berriak 14:30 Mahaingurua 15:30 Berriak 16:00 Goienasport 20:00 Berriak 20:30 Xeleberri 22:00 Iparrorratza 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Xeleberri 15:00 Iparrorratza 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Ekilan Ibarreko enpresa alorra nagusi Alberto Gorritibereak zuzentzen duen saioan. 21:30 Berriak	Ez dago programaziorik

TELEBEGI/ Edorta Arana

Metatelebista

GOIENKARIAn agertutako notizia bat *Bertatik Bertara* saioan atara zuten. Eroskiren *Consumer* aldizkariko erreportajea *Teleberri*-n aipatu zuten. *El Pais*-ek argitaratutako berri bat *El Mundo*-ko editorialean kritikatu zuten. Antena 3-ko albistegian esandakoa Onda Cero irratiako tertulian izan zuten hizpide. Endogamia mediatikoa esaten omen zaio horri.

Oraingoan, *Zapping*, *La Batidora* eta *La Corriente Alterna* izeneko programen bidez telebistaren txanda da. TBn agertutako hainbat saioen zatitxoek osatutako programa berriak besterik ez da. Birziklatu egiten dituzte programak. Produktu berriak pantailaratu programa zaharrak makilatuz. Besterik ezean, konpetentzia zertan ari den errepasatzen dute. Berrikuntzarik ez eta, dagoeneko emitituak diren programen errefrituak kaleratzen dituzte. Ikusgarriak bai, hutsala ere bai.

KAMERA AURREAN



"Jakingarriak aldizkariko aurpegia berri egin dugu, gure medio sinpleenekin. Erakargarriagoa ateratzeko, atseginagoa gure irakurleendako."

Nerea Altzola / 'Jakingarriak'-eko zuzendaria
"BERRIAK" (2002-03-20)



"Akaso datorren urterako, Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin etxebizitza sozialak egingo dituzte"

Rikardo Ortega /
Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza saileko ordezkaria
"BERRIAK" (2002-03-21)

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkarietako batera.

• **BERGARAN**

BERRIGARAREN egoitzan, Barrenkalea, 33 • 943 76 92 71

• **ARRASATEN**

ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna 31 • 943 71 25 11

• **ARETXABALETAN**

ARETXAGAZETAREN egoitzan; Durana 11 • 943 79 86 21

• **ARAMAION**

KINTELENA dendan; Nardeaga 11 • 945 44 50 22

• **ELGETAN**


MARI ASUN AGIRRE dendan; Salbador 26 • 943 76 81 90

• **ANTZUOLAN**

ITZAR liburu dendan; Kalebarren 1 • 943 76 60 62

• **OÑATIN**

BIKLON kopia eta diseinu dendan; Olakua • 943 78 10 65



GOIENKARIA,
bailarako
hedabide nagusia.

Astero
21.500 etxetan.

Prezioa:
60 €.

Atzeskua

MAIDER OSA

Elisa Martija/ Hegazkin pilotua

Neska, gaztea eta hegazkin pilotua. Ez da oso ohikoa, ezta? Ez da, ez. Hegazkin pilotuen artean oso neska gutxi dago.

Txikitatik erabaki zenuen, gainera, pilotu izatea.

Hamalau urte ingururakin, osaba-izeba batzuen bila joan nintzen gurasoekin aireportura. Hegazkinak ikusi nituenean erabat liluratu nintzen, eta orduan erabaki nuen nagusi egitean hegazkin pilotu izan nahi

nuela. Gurasoek umetako kontuak zirela pentsatu zuten, baina urteen buruz ikusi zuten serio ari nintzela.

Oso serio, gainera! Ameriketako Estatu Batuetara joan eta pilotu ikasketak egiteko...

Lehenengo, militarren akademia baten saiatu nintzen, Madrilen. Oso zaila zen, armadan sartzeko oso toki gutxi zeuden-eta. Gurasoek animatu ninduten gero, zentro pribatu batean ikasteko. Hemeretzi urtere-

kin eskola teorikoak hartu nituen, Madrilen, eta 450 ordu praktiko Ameriketara. Horrela, Ameriketako eta Espainiako lizentziak eskuratu nituen.

Hala ere, Ameriketako Estatu Batuetara joan eta ikasketak ingelesez egitea gogorra da, ezta?

Zailena hizkuntzarekin ohitzea izan zen; beharbada, pilotu ikasketak baino zailagoa.

Hegazkin pilotu ikasketak ez dira merke-merkeak izango...

Ez. Kurtsoa 10 milioi pezeta inguru-edo. Ikasle gehienak pilotuen seme-alabak izaten dira.

Eta nahikoa ikasi ondoren, orain irakasten diharduzu.

Madrilgo eskola baten dihardut, hegaldietako eskolak praktikoak ematen. Orainxe egin dut urtebete. 510 ordu daramatzat horretan, eta guztira 1.000 orduko hegaldia dut. Hori oso

aberasgarria da curriculumerako.

Zaila da hegazkin konpainia handi bateko pilotu izatera iristea?

Irailaren 11ko atentatuen ondorioz lan deialdiak gelditu egin dira. Lan guztietan moduan, jendea ezagutzea oso garrantzitsua da, baita esperientzia edukitzea ere.

Atentatuei dagokienez, zuk baduzu beldurrik bateren bat jasateko?

Egia esatearren, ez dut horretan pentsatu.

Zer sentitzen da hegazkin bateko aginteak lehenengoz hartzerakoan?

Zirrara berezia sorrarazi zidan niri; ahalguztidun sentitu nintzen, gauza guztien gainetik banengo bezala.

Madrilen bizi arren, Oñatira sarritan joaten zara, ezta?

Bai. Astero edo bi astean behin joaten naiz, lagunak eta familia ikustera.



“Irailaren 11ko atentatuen ondorioz lan deialdiak gelditu egin dira”

“Lehenengo aldiz hegazkineko mandoak hartzean zirrara berezia sortarazi zitzaidan; ahalguztidun sentitu nintzen”

“Hegazkin pilotuen artean oso neska gutxi dago”

► Oñatitarra / 26 urte / Hegazkin pilotua

PIPERRAUTSA

e-debagoiena

Okerrik ezean, astelehenean aurkeztuko dugu Leintz-Gatzagako Gatz Museoan, e-debagoiena izeneko egitasmoa.

Han izango gara Mondragon Unibertsitatea, MCC eta Goiena; eskualdeko Mankomunitatea eta Udalak; Eusko Jaurlaritzaren eta Euskaltel.

Guztion artean azalduko dugu Debagoienaren etorkizunean eragin handia izango duen proiektua.

Internetek aldaketa handiak ekarriko ditu gurera. Batzuk dagoeneko ekarri ditu, posta elektronikoren erabilera, adibidez.

Beste asko laister etorriko dira, sareak abiada azkarra eskainiko duen neurrian. Aldaketa horiek etorri zai egon barik, e-debagoiena bultzatu dugunok aurrea hartu nahi izan dugu, aldaketa gure neurria egokitu eta gure mesederako gerta dadin.

Informazioaren Gizartea deitzen diote datorrenari. Gizarte berri horretan geu izaten jarraitu nahi dugu, gure komunitate ezaugarriekin.

Elkarkidetzarako dugun gaitasuna, euskarari diogun atxikimendua, ekimenerako dugun ausardia..., horiek denak gordetzea komeni zaigu.

Hain justu ere, ezaugarri horiek egin gaituzte orain garena.

Eta, akatsak akats, ez gara makalak!

MIKEL IRIZAR

LILURA

EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7 • BERGARA
943 76 31 71



Ez dizugu ilerik utziko!

- Laser bidezko depilazioan espezialistak
- Lehenengo 20 deiek, diagnostikoa doan!

